

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Euskal Autonomia Erkidegoaren  
Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publiko eta  
Sozietate Publikoen kontuak**

**Cuentas de los Entes Públicos  
de Derecho Privado y Sociedades Públicas  
de la Comunidad Autónoma de Euskadi**

**2011**





## AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	9
II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA .....	9
II.1.1 Langileria.....	9
II.1.2 Ondasun eta zerbitzuen kontratazioa .....	10
II.1.3 Babesletza kontratuak .....	11
II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA .....	12
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	14
III.1 AURREKONTUA .....	14
III.2 LANGILERIA .....	14
III.3 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA.....	15
III.3.1 Kontratazio espedienteak .....	17
III.4 BESTELAKO ALDERDIAK .....	17
III.4.1 Merkataritzako eragiketetan berandutza .....	17
III.4.2 Emandako Diru-Laguntzak .....	18
III.4.3 Hitzarmenak.....	18
IV. SOZIETATE ETA ENTEEN URTEKO KONTUAK 2011-KO ABENDUAREN 31-RA AZTERTUAK.....	19
ALEGAZIOAK .....	25
ABREVIATURAS .....	57
I. INTRODUCCIÓN .....	59
II. OPINIÓN.....	61
II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD .....	61
II.1.1 Personal .....	61
II.1.2 Contratación de bienes y servicios .....	62
II.1.3 Contratos de patrocinio.....	64
II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS.....	64



<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>	<b>67</b>
III.1 PRESUPUESTO .....	67
III.2 PERSONAL .....	67
III.3 CONTRATACIÓN DE BIENES Y SERVICIOS .....	68
III.3.1 Expedientes de contratación .....	68
III.4 OTROS ASPECTOS .....	70
III.4.1 Morosidad en las operaciones comerciales .....	70
III.4.2 Subvenciones concedidas .....	71
III.4.3 Convenios .....	71
<b>IV. CUENTAS ANUALES DE ENTES Y SOCIEDADES PÚBLICAS ANALIZADAS AL 31 DE DICIEMBRE DE 2011 .....</b>	<b>72</b>
<b>ANEXOS .....</b>	<b>77</b>
A.1 Legislación aplicable .....	77
A.2 Inmovilizado intangible e inmovilizaciones materiales .....	78
A.3 Inversiones inmobiliarias .....	78
A.4 Inversiones en empresas del grupo y asociadas a largo plazo .....	79
A.5 Inversiones financieras a largo plazo .....	82
A.6 Existencias .....	82
A.7 Fondos propios .....	84
A.8 Subvenciones, donaciones y legados recibidos .....	84
A.9 Provisiones a largo plazo .....	85
A.10 Deudas a corto plazo y acreedores comerciales .....	86
A.11 Endeudamiento .....	87
A.12 Avaluos .....	89
A.13 Gastos de personal .....	90
A.14 Aprovisionamientos y otros gastos de explotación .....	90
A.15 Ingresos de explotación .....	92
A.16 Análisis de contratación .....	93
A.16.1 Expedientes adjudicados en 2011 .....	93
A.16.2 Expedientes adjudicados en ejercicios anteriores .....	93
A.17 Adquisiciones tramitadas como compras menores .....	97
A.18 Análisis de subvenciones .....	98
A.19 Análisis de contratos de patrocinios .....	98
A.20 Convenio colaboración STC-ELS, SA y Metaposta, SA .....	99
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>101</b>



## LABURDURAK

BOE	Estatuko Aldizkari Ofiziala.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
UK	Urteko kontuak
AFA	Arabako Foru Aldundia
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia
LDEAE	1/1994 Legegintza Dekretua, irailaren 27koa, Euskadiko Aurrekontu Errejimenari buruz indarrean dauden lege xedapenen Bateratutako Testua onartzen duena.
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
ETS	Euskal Trenbide Sarea
EJ	Eusko Jaurlaritza
BHI	Bigarren Hezkuntzako Institutua
KBJ	Kontrataziorako barne jarraibideak.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko zerga
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
EAEONAL	Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea
BOP	Baldintza Orokorren Plegua
ATP, SA	Arabako Teknologia Parkea, SA
DTP, SA	Donostiako Teknologia Parkea, SA
ED	Errege Dekretua
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
AHL	Arautze Harmonizatuari Lotua
SPRILUR, S.A.	Industri Lurra Sustatu eta Kudeatzeko Sozietatea, SA
ELS, SA	Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SA. (Ihengo SPRI, SA).
SPKLTB	Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina
EAETB	Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruzko indarreko legezko xedapenen testu bategina.
EHJAN	Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorena
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
URA	Uraren Euskal Agentzia
VIKESA	Euskadiko Etxebizitza eta Lurzorua, SA



BOE	Babes Ofizialeko Etxebizitzak
PTE	Prezio Tasatuko Etxebizitza
ES	Etxebizitza Soziala



## I. SARRERA

HKEEK otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak onartutako Lanerako Planean ezarritakoari jarraiki, ELS, SA eta VISESA sozietateen eta ETS erakundearen 2011ko ekitaldiko urteko kontuen fiskalizazioa mamitu du, EAEren zuzenbide pribatuko erakunde publikoen eta sozietate publikoen kontuen fiskalizazio esparruan barne hartzen direnak.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 7. artikulua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duenak, Euskadiko Ondareari buruzko azaroaren 17ko 5/2006 Legearen Seigarren Azken Xedapenak emandako erredakzioan EAEren sektore publikoaren gaineko definizioan honako hauek barne hartzen ditu: EAEren administrazio orokorra, erakundeen administrazioa (erakunde autonomo eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak), sozietate publikoak eta sektore publikoko fundazioak; baita legeak jasotako ezaugarriak betetzen dituzten partzuergoak.

Gauzatu beharreko lanak ez du Osakidetza eta Euskal Irrati Telebista (EiTB) zuzenbide pribatuko erakunde publikoen, ezta haien mendeko sozietateen fiskalizazioa barne hartzen, HKEEK horiek beste fiskalizazio txosten batean aztertu baititu. Erakunde hauek salbuetsita, zuzenbide pribatuko erakunde publiko eta sozietate publikoak, zeinetan EAEren Administrazio Orokorraren partaidetza-ehunekoa kapital sozialaren % 50etik gorakoa den, 2011ko abenduaren 31n, hurrenez hurren, 8 eta 46 ziren, era honetara sailkatuak:

- ELS, SA taldea (\*): 26 sozietate

2011n honako sozietate hauek desagertu dira: Aiara Haraneko Industrialdea, SA, Lautadako Industrialdea, SA, Orduñako Industrialdea, SA, eta Zamudioko Enpresa Gunea, SA.

Berebat, Arabako Industrialdea, SA sortu da.

- EEE Taldea: Energiaren Euskal Erakundea eta 6 sozietate.

- Eusko- Trenbideak taldea: 2 sozietate

- Besterik: Zuzenbide pribatuko 5 erakunde publiko eta 12 sozietate eta fundazio 1.

2011n honako sozietate hauek desagertu dira: SPGVA eta Itsasmendikoi, SA.

Berebat, honako sozietate hauek sortu dira: Alokabide, SA, Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa, SA.

Ondotik adierazitako erakundeak sortu dira: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua (\*\*)

2012 Fundazioa sortu da.

(\*) SPRIren izen aldaketa 2011ko ekainaren 6ko datarekin Arabako Merkataritza Erregistroan Sozietatearen izen aldaketa erregistratu zen, Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SA izen berria hartuz.

(\*\*) Nahiz 2011ko azaroaren 3az geroztik LANBIDE Erakunde Autonomoa den, EJRren Ekonomia eta Ogasun Sailaren baimena oinarri hartuta, urteko kontuak zuzenbide pribatuko erakunde publiko modura aurkeztu dira. Aurkezpen honen ondorioetarako halakotzat hartuko dugu.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

ELS, SA eta VISESA sozietateak eta ETS erakundea hautatu dira; horiek guztiek batean kapital aurrekontuaren % 26 eta ustiaketa aurrekontuaren % 8 egiten dute, Enpresa Sektore Publikoaren guztizko aurrekontuaren gainean.

SOZIETATE/ERAKUNDEA	% PARTAIDETZA	
	EJ	XEDEA
<b>SOZIETATE PUBLIKOAK:</b>		
1. STC-ELS, SA.....	% 99,01	Industri sustapena, enpresa berrien sorrera bultzatu eta enpresen arteko lankidetzak
2. VISESA .....	% 67	Etxebizitzak sustatu eta zaharberritzea, babes ofizialekoak gehienbat.
<b>ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAK:</b>		
3. ETS.....	% 100	Trenbide gaietan lankidetzak teknikoak, trenez garraiatzeko azpiegiturak eraikitzea eta zaintzea, kudeatzea eta administratzea.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- **Legezkoak:** Honako atal hauetan: aurrekontua, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, erosketa eta zerbitzuak, diru-laguntzen emakida eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia.
- **Kontularitzakoak:** Urteko kontuak ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu. EA Eren Sektore Publikoa osatzen duten erakunde eta sozietate guztiek - fiskalizazio txosten honen xede direnak- kanpoko enpresek egindako auditoria finantzario eta aurrekontua betetzeari buruzko txosten bat dute, HKEE honek lan hau egiteko aintzat izan dituenak.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi ere, azaleratutako hutsak “Kudeaketaren alderdiak eta Gomendioak” idazpuruan xehetasunez jaso ditugu.



## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### II.1.1 LANGILERIA

1.- ETS Erakunde Publikoak lan kontratupeko langileei 2010eko abenduko ordainsariak bere horretan utzi dizkie, inongo murrizketarik egin gabe, 2010eko ekitaldirako defizit publikoa murrizteko aparteko neurriak ezartzen dituen ekainaren 24ko 3/2010 Legeak agintzen zuen moduan; horrek, bada, urratu egiten du abenduaren 22ko 39/2010 legearen 22.2 artikuluan ezarritakoa, 2011ko ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena.

2.- Abenduaren 22ko 39/2010 Legeak, 2011ko ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena, ekitaldi horretan zehar sektore publikoko langile kontratazioak mugatzen ditu. Honela, bada, 23.1 artikulua sarrera berriko lanpostuetarako langileen birjartze tasaren % 10ean ezartzen du muga, betiere lehentasunezko kategoriakoak badira edo oinarrizko zerbitzu publikoen funtzionamenduan eragiten badute.

ELS, SA sozietateak eta ETS erakundeak urratu egin dute 23.1 artikulua langile finkoen kontratazioan, hurrenez hurren, hiru eta bost langileri alta eman baitie.

3.- ELS, SAK langileen hautaketa egiteko berariaz gaitutako enpresa bat kontratatu du, deialdiari publikotasuna eman eta hautagaien azken zerrenda proposatzen duena. Sozietateak kontratatutako enpresari ez dio exijitzen hautagaiak aukeratzeko berdintasun-, meritu- eta gaitasun-baldintzak bete dituztela ziurtatuko duen agiririk aurkezteko, eta, ondorioz, ezin izan da egiaztatu printzipio horiek bete diren. 2011ko ekitaldian egindako kontratazioak 3 pertsonari lan kontratu finkoak izan dira.

Gainera, langileak hautatzeko kanpoko enpresek proposatutako izangaien azken zerrenda ez da puntuen arabera hurrenkeratu eta ez da kontratatutako pertsonarekin izenpetu beharreko kontratu mota argitaratu.

4.- ELS, SAK langile batekin kontratua eteteko akordioa izenpetu zuen eta horren ondorioz, 85.000 euroren kalte-ordaina ordaindu zaio; ezin zehaztu izan dugu lan araudiaren arabera zegokiokkeen zenbatekoa.

5.- ETS: Aldi baterako langile bati, 2009az geroztik enpresan plantillan zegoena, txandakako kontratu mugagabea egin zitzaion, inongo hautaketa prozesurik bideratu gabe. 2009ko ekitaldiaz geroztik betetzen zuen plazaren deialdian adierazia zegoen aldi baterako izaera zuela.

6.- ETSk langile bati 80.000 euroren kalte-ordaina ordaindu dio arrazoi objektiboengatik kontratua amaitu ostean; ordea, ordaindutako kalte-ordaina ez du inongo legezko supostuk, ezta hitzarmenek ere euskarritzen.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

7.- ETSk 50.236 euro ordaindu ditu 55 urte bete eta ezintasun iraunkor erabatekoa izateagatik; ordea, 46.244 euro zegozkiokeen hitzarmenaren arabera; honenbestez, 3.992 euro gehiago ordaindu dira.

## II.1.2 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

### STC-ELS, SA

8.- Guztira 587.418 euroan ordaindutako 3 kontratutan, pleguetan eskatutako kaudimenak lehia mugatzen du. Kontratu horietako 2tan, bakoitza 190.000 euroan lizitatzen dena, sailkapen maila bat eskatzen da, D kategoriakoa, hau da, 600.000 euroren pareko urtekoa edo handiagoa. 1,4 milioi euroren zenbatekoan lizitatutako hirugarren kontratutan esaten da lehiaketan parte hartu ahal izango dutela soilik urteko negozio bolumena 2 milioi eurotik gorakoa dutela egiaztatzen duten haiek. (A5 akatsa A.16.1 eranskinean).

9.- Guztira 596.337 euroan esleitutako 4 kontratu eskaintzak aurkezteko eskari bidez izapidetu dira; alabaina, zenbatekoa aintzat hartuta publikotasuna emanda izapidetu behar ziratekeen (B1 akatsa A.16.1 Eranskinean).

10.- ELS, SAK agindutako kanpainetarako publizitate baliabideak planifikatu eta kudeatzeko zerbitzu kontratua, 116.960 eurorena, EZ SARA motako kontratu modura izapidetu da; ordea, pleguetan aurreikusitako luzapenak aintzat hartuta, SARA motako kontratu modura izapidetu behar zatekeen; horren ondorioz, ez da zegokion esleipen prozedura baliatu, publikotasun betekizunak urratuz eta lehia mugatuz (A6 akatsa A.16.1 Eranskinean).

11.- Metaposta sistemaren erabiltzaileei euskarri zentroko zerbitzuak planifikatu, prestatu eta ematea xede duen kontratua aleko prezioetan esleitu zen eta 90.162 euroan egikaritu; kontratu horretan zatikatu egin da kontratuaren xedea, izan ere 30.981 euroren zenbatekoa fakturatu dira pleguetan aurreikusi ez ziren kontzeptuak, baina kontratuari berari datxezkionak (E2 akatsa, A16.1 Eranskinean).

12.- 2006ko urrian lankidetza hitzarmen bat izenpetu zen hirugarren batekin ELS, Saren bidaiak kudeatzeko. Akordio hori 2006ko azaroaren 1ean sartu zen indarrean eta besterik gabe luzagarria zen gehienera lau urteko epera arte, indarrean egon zelarik 2010eko azarora arte. 2011n 167.457 euro ordaindu dira lizitazio espedienterik bideratu gabe.

13.- Kontratu txiki modura izapidetu diren 114.378 milioi euroren gastuak egin dira; ordea, Kontrataziorako Barne Aginpideen arabera zegokion prozedura bitartez izapidetu behar ziratekeen (Ikus A.17.1 Eranskina).



## VIIESA

14.- 2011ko irailaren 14ko Administrazio Kontseiluaren aktan, Zabalganako 288 VPO etxebizitzaren sustapenean obra entregatzean izandako atzerapenarengatik ezarritako 808.168 euroren zigorrari zegokionez, erabaki zen guztion adostasunarekin oroharreko kopuruan guztira atxikitzeko zenbatekoa 350.000 euroan ezartzea eta segituan 458.168 euro itzultzea. Hartutako erabakia gauzatu da jardueraren objektibotasuna justifikatu gabe, ez baitago kasuari atxikitako arrisku juridikoak agerian utziko dituen txosten teknikorik eta transakzio akordioa hartu izana eta kalte-ordainaren zenbatekoa arrazoituko duenik.

15.- Kontratu txiki modura izapidetu diren 203.974 milioi euroren gastuak egin dira; ordea, Kontrataziorako Barne Aginpideen arabera zegokion prozedura bitartez izapidetu behar ziratekeen (Ikus A.17.2 Eranskina).

## ETS

16.- Obra osagarri modura izapidetutako bi obrek, zuzenean obra nagusien kontratugileei guztira 8,1 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak, ez dituzte halakotzat hartzeko betekizunak betetzen, ez baitira aurreikusi ezineko inguruabarren ondorio. Honenbestez, prozedura irekiak izapidetu behar ziratekeen eta zegokion kontratazio espedienteak izapidetu (A9 akatsa A.16.1 Eranskinean).

17.- Arroan, Zestoan, mendi-hegala egonkortzeko obren kontratuan -140.278 euroan esleitu zena- obraren lizitazioa ez da aldizkari ofizialetan argitaratzen, Kontrataziorako Barne Aginpideek agintzen duten moduan (B3 akatsa A.16.1 Eranskinean).

18.- Kontratu txiki modura izapidetu diren 1,3 milioi euroren gastuak egin dira; ordea, Kontrataziorako Barne Aginpideen arabera zegokion prozedura bitartez izapidetu behar ziratekeen (Ikus A.17.3 Eranskina).

### II.1.3 BABESLETZA KONTRATUAK

19.- ELS, SA sozietateak eta ETS erakundeak lau eta bost babesletza kontratu gauzatu dituzte, hurrenez hurren, 789.491 euroren eta 619.300 euroren zenbatekoan, zuzenean esleituta, publikotasun eta lehiarik gabe (A akatsa A.19 Eranskinean) eta sozietateak eta erakundeak egindako ekarpen ekonomikoen kostuaren justifikaziorik izan gabe, eskuratu beharreko hedapenaren emaitzei dagokienez (B akatsa A.19 Eranskinean).

Epaitegi honen iritzira, EAEren Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten fiskalizatutako erakunde eta sozietateek, aurreko idatz-zatietan aipatutako lege haustek alde batera, zuzentasunez bete dute 2011ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



## II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

### ETS

1.- Erakundearen xede soziala EAEren tren azpiegiturak eraiki eta kudeatzea da; 2006ko abuztuaren 1ean, Eusko Jaurlaritzak atxikipen erregimenean helburu berarekin ordura arte ET,SA sozietate publikoari atxikitako lehenagoko ibilgetu material eta ez-materialak esleitu zizkion, guztia ekainaren 6ko 118/2006 Dekretuaren arabera. Dekretu horren arabera, 2005eko abenduaren 31n ekarritako ondasunen kontularitzako balio garbiak 221 milioi euro egin zituen. Kopuru honetan Elorrieta-Plentzia trenbidearen aktiboak barne hartzen ziren, Metro Bilbaora 1995ean eskualdatutakoa; baita beste aktibo batzuek ere, zeinak Erakundeak kontularitzako erregistroen azterketa eta arazketa egin ondoren ez zirela existitzen ondorioztatu zen; horregatik guztiagatik, eskualdatutako aktiboen kontularitzako balioa finean 204,9 milioi euroena izan zen, kontrakontua Erakundearen funts sozialean izanik. Berebat, Erakundeak 20,4 milioi euroren zenbatekoa egin zuten hainbat aktibo jaso zituen Eusko Trenbideak sozietatetik, 2006ko ekitaldian esleipen datara arte egindako gehikuntzei zegozkienak.

Erakundeak gaur egun ET-FV, SA sozietate publikotik eratorritako eta erakundeari atxikitako ibilgetu materialen multzoa osatzen duten elementuen erregistro bereizirik ez du, behin horiek fisikoki existitzen direla eta erabilgarri daudela egiaztatu ondoren; berebat, ez du aktibo material horiekin loturik aipatutako atxikipenetik eratorritako azterketa eta proiektuen kapitalizazio egokiaren erregistrorik ere; honen guztiaren ondorioz, txosten hau idatzi dugun datan ezin egiaztatu izan dugu Erakundeari eskualdatu eta atxikitako ondasun material eta ez-material horien kostua eta dagokion amortizazioa, ez eta, honenbestez, 2011ko abenduaren 31n urteko kontuen likidazioan izan dezakeen eragina ere. Aipatutako datan aktibo hauek gutxi gora-behera 139 milioi euroren kontularitzako balio garbiarekin daude erregistratuak.

2.- Gainera, aurreko paragrafoan adierazitakoaz gain, Eusko Jaurlaritzak 118/2006 Dekretuaren arabera, ekainaren 6koa, atxikipen erregimenean EAEren trenen jabetza publikoko gainerako ondasunak esleitu zizkion Erakundeari, 2488/1978 Dekretu bidez, abuztuaren 25ekoa, eta 3/1979 Lege Organiko bidez, abenduaren 18koa, eskualdatutako trenbide-lineek eta Zumarragatik Zumaira bitarteko trenbide-lineak eta Bilboko Tranbiaren A Lineak osatutakoa eta horien administrazioa eta kudeaketa agindu zion. Erakundeak ez du linea hauei dagozkien ondasunen zerrenda eta baloraziorik eta honenbestez, ezta horien erabilera-eskubideari egotz dakioken baliorik ere. Honenbestez, gaur egun ezin zehatz daiteke aipatutako eskubidea aitortzeak 2011ko abenduaren 31n urteko kontuen likidazioaren gainean izan lezakeen balizko eragina.



3.- Erakundeak ez du ondare garbian jasotako diru-laguntza ez itzulgarrietatik eratorritako dagokion ondorio fiskala barne hartzen, ezta oinarri zergagarri negatiboetatik eta dedukzioetatik - kasua balitz, etorkizunean gauza litezkeenak- eratorritako kreditu fiskalen eragina ere. Honen guztiaren ondorioz, 2011ko abenduaren 31n “jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak” idazpuruari gutxi gora-behera 143,2 milioi euroren balio handiegia eman zaio; “geroratutako zergak” idazpuruaren saldo garbiari (pasiboko egoera) gutxi gora-behera 120,6 milioi euroren balio txikiagoa eta “erretserbei” eta ekitaldiaren emaitzari, hurrenez hurren, 18,5 eta 4,1 milioi euroren balio txikiagoa eman zaie.

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoetan jasotako zalantzen eta balizko doiketen eragina salbu, EAEn Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten erakunde eta sozietate fiskalizatuaren urteko kontuek alderdi esanguratsu guztietan adierazi dute 2011ko ekitaldiko ekonomia jarduera eta ondarearen eta ekitaldi itxieran amaitutako finantza egoeraren irudi leiala.

Gure auditoriako iritzia atalean eraginik ez badu ere, ondotik adieraziko ditugun alderdiak azpimarratu nahi ditugu:

## ETS

Erakundeak duen izaeragatik Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrarekiko erabateko mendekotasuna du jardueraren garapen eta jarraikortasunerako. Horren ondorioz, Erakundeak EJTik honako hauek jasotzen ditu: 1) berariazkoa duen tren azpiegiturak kudeatzeko egitekoaren garapenean gauzatzen dituen hainbat gastu ordaintzeko diru-laguntzak; 2) kapitalezko diru-laguntzak egin beharreko inbertsioak finantzatzeko; 3) Euskal Herriko trenbide sare berriarekin (Euskal Y) lotutako hainbat jarduera eta Bilboko tranbea programa eta hiri trenbidea egiteko mandatuak; 4) eta Eusko Trenbideak, SAri fakturazioak egiten dizkio tren azpiegiturak ustiatzeagatik, alde bien artean finkatutako prezioen arabera. Berebat, urteko ekitaldi bakoitzerako aurrekontu egindako eta egiaz gauzatutako zenbatekoen artean sortutako aldeen ondorioz eta kontutan izanik funts sozialaren bitartez finantzatutako aktiboen amortizazio kostuak ez direla finantzatzen, desbideratzeak sortzen dira eta desbideratze horiek, eskuarki, kontularitzan galera garbiak erakusten dituzte, batik bat amortizazioen osagarriak eraginda. 2011ko ekitaldian galerak 10,6 milioi eurorenak izan dira eta horiek, jardueren finantzaketa erabatekoaren eskemaren arabera, EJK etorkizunean egindako ekarpen bitartez berdindu behar lirateke.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

#### III.1 AURREKONTUA

- Geroko konpromisoak egikartzeko laburpena, EA Eren Sektore Publikoko Aurrekontuen eta Urteko Kontuen likidazioan aurkeztutakoak, datozen ekitaldietarako konprometitutako 129 milioi euroren kredituak daudela jakinarazi du, 162 milioi euroren kredituak zorpetu direlarik. Aurrekontuak 211 milioi euro arteko konpromiso kredituak aurreikusten zituen.

Bestetik, erakundearen Urteko Kontuak osatzen dituzten oroitidazkiek ez dute behar bezala informatzen ekitaldi itxieran dituzten geroko konpromisoei buruz.

#### III.2 LANGILERIA

- Abenduaren 22ko 39/2010 Legeak, 2011ko ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena, ekitaldi horretan zehar sektore publikoko langile kontratazioak mugatzen ditu. ETS ez zaio 23.2 artikuluan ezarritakoari egokitu, aldi baterako langileen kontratazioa aparteko egoeretara edo beharrian premiazko eta gerora ezin etara mugatzen duenari, eta aldi baterako langile bat kontratatatu du.
- STC-ELS, SA Hiru langileren ordainsariak igo ditu egiteko berriak betetzen hasi direlako eta gainera, helburuak betetzeagatik ordainsari aldakorrak aitortu dizkie. Soldata igoera eragin duten egiteko horiek bete litzaketenen arteko berdintasuna eta lehia bermatuko duen prozedurarik ez da batera gauzatu eta ez da Sozietate honen lan baldintzen hitzarmen erregulatzailerak bete, honek ez baititu lan kontratupeko langileentzat ordainsari aldakorrak aurreikusten, zuzendarientzat soilik baizik.  
Aipatutako langile horietako bati dagokionez, sustatutako lanpostuari dagozkion ordainsarietan 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera % 9 igoko dira ordainsari finkoak eta % 47, berriz, ordainsari aldakorrak.
- STC-ELS, SA Lan kontratupeko hiru langile finkoren kontratazioak hobari aldakorrak jasotzen ditu horien lan kontratuetan, une bakoitzean enpresaren zuzendaritzak ezartzen dituen helburuen arabera kalkulatzen direnak; horrekin, baina, ez da Sozietate honen lan baldintzak arautzen dituen Hitzarmena betetzen, izan ere ordainsari aldakorrak aurreikusten ditu sozietateko zuzendaritzako langileentzat, baina ez lan kontratupeko langileentzat.
- ETS: Hiru langileri dagozkien ordainsari mailak aldatu egin dira, neurri hori justifikatuko duen inongo txostenik gabe.

### III.3 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

#### III.3.1 KONTRATAZIO ESPEDIENTEAK

Ekitaldian esleitutako kontratazio espedienteak aztertzetik eta lehenagoko ekitaldietan esleitutako espedienteak jarraitzetik, A.16 eranskinean aztertu ditugunak, honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

#### Kontratatorako Barneko Aginpideak

##### STC-ELS, SA

Sozietatearen KBAek eskaintza bakarra eskatzeko betebeharra arautzen dute 50.000 eurotik beherako kontratuetan; honenbestez, ez dira bermatzen erregulazio harmonizatuari lotzen ez zaizkion kontratuak arautzen dituen SPKLren 175 a) artikuluan agindutako printzipioak. Kontratu txiki modura izapidetu diren 89.799 euroren gastuak egin dira; ordea, zegokion prozedura bitartez izapidetu behar ziratekeen (Ikus A.17.1 Eranskina).

##### STC-ELS, SA

- Guztira 1,2 milioi euroan esleitutako 7 kontratutan prezio irizpidearen haztapena ez da finkoa, aldakorra baizik, egiaz aurkezten diren eskaintzen baitakoa; horrek, desitxuratu egiten du pleguetan ezarritako haztapena (A1 akatsa A.16.1 Eranskinean).
- Guztira 828.973 euroan esleitutako 6 kontratutan, kontratuaren xedearekin zerikusirik ez duten alderdiak balioztatzen dira, hala nola, lan-taldea eta eskarmentua (A2 akatsa A.16.1 eranskinean).
- 738.811 milioi euroan esleitutako 5 kontratutan BOPak esleipen irizpide orokorrak ditu, proposatutako jarduera programa eta lanerako plana, esate batera (A3 akatsa A.16.1 eranskinean).
- Telefono eta posta elektronikoko bidez jendea artatzeko zerbitzuak emateko pleguetan, 307.256 euroan esleitutakoan, ez da ez lizitazio aurrekontua ezta/edo kontratuaren balioetsitako balioa adierazten 8A4 akatsa A.16.1 Eranskinean).
- Guztira 704.204 euroan esleitutako 5 kontratuti dagokionez, pleguetan parte hartzeko eskabidea eta/edo eskaintzak aurkezteko ezarritako epea ez da nahikoa publikotasuna bermatzeko (A8 akatsa A.16.1 Eranskinean).
- Metaposta sistema mantendu, euskarritu eta laguntza teknikoa emateko zerbitzuen kontratuan, aleko prezioetan esleitu eta 190.000 euroan egikaritutakoan, espedientean ez dago erasota zerga eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak bete dituelako dokumentazioa eta JEZa, kontratua izenpetu aurrean (B2 akatsa A.16.1 Eranskinean).
- Guztira 984.366 euroan esleitutako 7 kontratutan txosten teknikoak ez ditu irizpide bakoitzari esleitutako puntuazioak arrazoitzen (C1 akatsa A.16.1 eranskinean).



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## VIIESA

- Guztira 40,6 milioi euroan esleitutako 4 kontratutan prezio irizpidearen haztapena ez da finkoa, aldakorra baizik, egiaz aurkezten diren eskaintzen baitakoa; horrek, desitxuratu egiten du pleguetan ezarritako haztapena (A1 akatsa A.16.1 Eranskinean).
- Guztira 997.500 euroan esleitutako 108 BOE, 63 ES eta 190 PTE, kontratuaren xedearekin zerikusirik ez duten alderdiak balioztatzen dira, hala nola ISO 9001 ziurtagiriak eta lan merkatura berriki txertatutako profesionalak (A2 akatsa A.16.1 Eranskinean); halaber, pleguek nahitaez betebeharreko betekizunak balioztatzen dituzte, indarreko planeamendua eta araudia betetzea esaterako (A10 akatsa A.16.1 Eranskinean).
- 31,1 milioi euroan esleitutako 4 kontratutan BOPEk esleipen irizpide orokorrak dituzte, hala nola, eskaintzan zorrozatasuna, koherentzia eta oroitidazkian kalitatea izatea (A3 akatsa A.16.1 eranskinean).
- 30,2 milioi euroan esleitutako 3 kontratutan, formula bidez neurgarriak diren irizpideen arabera eskaintzak ebaluatzea ez da formularik gabe irizpideen ebaluazioa gauzatu ondoren egiten.
- Guztira 40,6 euroan esleitutako 4 kontratutan txosten teknikoak ez ditu irizpide bakoitzari esleitutako puntuazioak arrazoitzen (C1 akatsa A.16.1 eranskinean). Salburuako 12. sektorean 176 etxebizitza sozial egikaritzeko kontratutan, 11,6 milioi euroan esleitutakoan, txosten teknikoak oker balioztatzen ditu BOPetan ezarritako esleipen irizpideak, ez baititu egoki hainbanatzen pleguetan salmenta osteko zerbitzua irizpideari emandako puntuak (C2 akatsa A.16.1 eranskinean).
- 144 BOE egikaritzeko kontratutan, 10,4 milioi euroan esleitutakoan, zuinetaren egiaztaketak gaingitu egiten du legezko epea kontratua gauzatzen denetik aurrera lau hilabeteko epean (E1 akatsa A.16.1 eranskinean).
- Aurreko urteetan egindako esleipenei dagokienez, Sestaoko San Francisco Zelaia zultzeko kontratuak, 749.147 euroan esleitu zenak, ez du harrera aktarik (A akatsa A.16.2 eranskinean) eta obraren egikaritzak 2,5 hilabeteko atzeraldia du (B akatsa A.16.2 eranskinean).

## ETS

- Guztira 8 milioi euroan esleitutako 3 kontratutan, kontratuaren xedearekin lotu gabeko ezaugarriak balioztatzen dira, ISO ziurtagiriak, biltegiak, makineria eta ekipoak esaterako (A2 akatsa A.16.1 eranskinean).
- 9,3 milioi euroan esleitutako 5 kontratutan BOPak esleipen irizpide orokorrak ditu, hala nola, eskaintzan zorrozatasuna, koherentzia eta oroitidazkian kalitatea izatea (A3 akatsa A.16.1 eranskinean).
- 5,5 milioi euroan esleitutako 2 kontratutan, BOPEk ez dute kontratuaren balioetsitako balioa jasotzen (A4 akatsa A.16.1 eranskinean).



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- 5,3 milioi euroan esleitutako kontratu batean, formula bidez neurgarriak diren irizpideen arabera eskaintzak ebaluatzea ez da formularik gabe irizpideen ebaluazioa gauzatu ondoren egiten (A7 akatsa A.16.1 eranskinean).
- Lasarte-Añorga bide-zatiko instalakuntza elektrikoak, ekipo elektromekanikoak eta irispide mekanizatuak muntatzeko obra kontratuan, 2,5 milioi euroan esleitu zenean, pleguek nahitaez bete beharreko betekizunak balioztatzen dituzte, hala nola, segurtasun eta osasun plana (A10 akatsa A.16.1 eranskinean).
- ETS trenbideetarako trenbide mekanizatuaren mantentze kontratuan, 5,3 milioi euroan esleitu zena, txosten teknikoak oker balioztatzen ditu BOPetan ezarritako esleipen irizpideak; bada, hirugarren bati proposamenaren kalitatea irizpidea 40 punturekin balioztatu dio multzo batean eta beste multzo batean 45 punturekin, proposamenaren kalitateari zegozkion deskribapenak, bi multzoetan berdin-berdinak izanik. (C2 akatsa A.16.1 eranskinean). Gainera, kontratua epez kanpo egin da, 1,5 hilabete beranduago (D1 akatsa A.16.1 eranskinean).
- Zestoan Arroako mendi-magala egonkortzeko obren kontratuan, guztira 140.278 euroan esleitutakoan, txosten teknikoak ez ditu irizpide bakoitzari esleitutako puntuazioak arrazoitzen (C1 akatsa A.16.1 eranskinean).
- Guztia 8,1 milioi euroan esleitutako 2 kontratutan, esleipenak ez dira Erakundearen web orrian argitaratu (D2 akatsa A.16.1 eranskinean).
- Loiola-Herrera obrarako Stedef motako 7.490 Bibloc trabesen hornidura kontratuan, 1,1 milioi euroan esleitutakoan, horniduraren epe luzapena kontratua amaitu ostean egin da (E1 akatsa A.16.1 eranskinean).

### III.4 BESTELAKO ALDERDIAK

#### III.4.1 MERKATARITZAKO ERAGIKETETAN BERANDUTZA

Erakunde eta sozietate publikoek 2010eko uztailaren 7a eta gero egindako kontratuei ezargarria zaien ordainketarako legezko gehiengo epea, modu iragankorrean uztailaren 5eko 15/2010 Legearen hirugarren artikulua, hirugarren atala, eta bigarren xedapen iragankorrak finkatu zuten; lege honek merkataritzako eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen zituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten zuen. Epe horiek 55 egunekoak dira administrazioentzat eta 85 egunekoak SPKLn administrazio publiko izaera ez duten erakunde eta sozietate publikoentzat.

Gainera, 2011ko apirilaren 12ko Gobernu Kontseiluaren Erabaki bitartez, EA Eren Administrazio Orokorraren mendeko sektore publikoarentzat honako obligazio hau ezartzen da: 2011ko bigarren seihilabeteko ordainketak gehienera 40 eguneko epean egin beharrekoa.

15/2010 Legean jasotako "Informatzeko betebeharra" Hirugarren xedapen osagarriak agintzen du sozietateek berariaz argitaratu beharko dituztela urteko kontuen Oroitidazkian euren hornitzaileekin dituzten ordainketa epeei buruzko informazioak.



ETSk 2011ko abenduaren 31n ordaintzeko saldoak ditu legezko ordainketa epeaz gaindiko gerorapenak metatzen dituzten hornitzaileekin, 1,8 milioi euroren zenbatekoan. Gainditutako batez besteko ordainketa epea 73,3 egunekoa da.

Gainera, VISESAk oroitidazkian hornitzaileei egin beharreko ordainketen epeen berri ematen du, 2011ko apirilaren 12ko Gobernu Kontseiluaren Erabakian ezarritakoaren arabera, legeak agintzen duena baino murrizgarriagoak direnak. Erabaki horrek ezarritako epea gaintzen duen zor saldoa ekitaldi amaieran 64.000 eurorena da eta batez beste gaintutako ordainketa epea 69 egunekoa da.

ELS, SAK ez du bere oroitidazkietan modu egokian informatzen hornitzaileei ordaintzeko dituzten epeez; izan ere, Administrazio Publikoari ezargarriak zaizkien epeak ezartzen dituzte sozietate publikoentzat zehaztutako 85 egunekoak beharrean, uztailaren 5eko 15/2010 Legearen Bigarren xedapen iragankorrari jarraiki.

#### **III.4.2 EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK**

ELS, SAK enpresa pribatu batekin izenpetutako hitzarmen bidez, Euskal Herriaren lehiakortasuna hobetzeko ekintza estrategikoen proiektua finantzatzera zuzendutako diru-laguntza eman du, 300.000 euroren zenbatekoan. Nahiz diru-laguntza hau izenez jasoa dagoen ELS, SAREN ustiaketa aurrekontuan, EAAREN Aurrekontu Orokorretan barne hartua dagoena, 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 48.5 artikulua, azaroaren 11koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duenak, zehazten du sozietate publiko, zuzenbide pribatuko erakunde publiko eta Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren bitartez finantzatzen diren bestelako erakundeak, zeinahi dela ere haien izaera edo molde juridikoa, euren diru-laguntza jarduera publikotasun, lehia eta objektibotasun printzipioetara egokituko dutela.

#### **III.4.3 HITZARMENAK**

2011ko otsailaren 2an ELS, SA eta Metaposta, SAREN artean izenpetutako lankidetzaren hitzarmenean, eta aldean konturako prestazioen balioari dagokionez, adosten da Metaposta, SAK ordaindu beharreko prezioa ustiaketaren ordainketan honek eskuratzen dituen irabazien baitakoa izango dela, kopurua zehaztu gabe; hori ez zaio 2010eko Marko Hitzarmenari egokitzen, zeinak garapena berariazko erabakien bidez egingo dela dioen arren, non terminoak eta baldintzak arautu eta mugatuko diren, baita aldean eskubide zein obligazioak ere, jasotzen baitu bi sozietateen arteko lankidetzaren oinarria proiektua ezarri eta garatzetik eratorritako arrisku eta irabaziak partekatze printzipioa izango dela; honela, bada, ez dio inongo diru-kopururik ordaindu ELS, SARI hitzarmenaren indarraldiko lehenengo urtean (ikus A.20 Eranskina).



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

#### IV. SOZIJETATE ETA ENTEEN URTEKO KONTUAK, 2011-KO ABENDUAREN 31-N AZTERTUTAKOAK

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2011 ETA 2010-EKO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	Eransk.	STC-ELS, SA		VISESA		ETS	
		2011	2010	2011	2010	2011	2010
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>449.968</b>	<b>418.504</b>	<b>21.188</b>	<b>22.618</b>	<b>729.283</b>	<b>549.849</b>
Ibilgetu ukiezina .....	A2	-	-	105	178	3.685	4.858
Ibilgetu materialak .....	A2	656	568	15.049	15.214	725.549	544.945
Ibilgetuko inbertsioak .....	A3	1.943	1.989	-	-	-	-
Taldeko eta elkartut. enpresen inberts. ....	A4	371.208	353.431	2.071	3.047	-	-
Finantza inbertsioak epe luzera .....	A5	73.269	58.229	2.601	2.775	49	46
Atzeratutako zergengatiko aktiboak.....		2.892	4.287	1.362	1.404	-	-
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>43.916</b>	<b>104.502</b>	<b>362.036</b>	<b>412.757</b>	<b>84.904</b>	<b>98.850</b>
IZAKINAK .....	A6	-	-	325.492	358.510	-	-
Merkatar. zord. eta kobr. beste kntu batzuk.....		19.912	33.462	26.277	48.972	69.571	65.363
Finantza inbertsioak epe laburrera.....		-	-	5	5	75	54
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		13	17	45	84	65	253
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak.....		23.991	71.023	10.217	5.186	15.193	33.180
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>		<b>493.884</b>	<b>523.006</b>	<b>383.224</b>	<b>435.375</b>	<b>814.187</b>	<b>648.699</b>
<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>429.845</b>	<b>408.549</b>	<b>61.645</b>	<b>61.979</b>	<b>742.585</b>	<b>584.513</b>
Funts propioak .....	A7	422.409	397.525	41.814	40.300	230.980	237.411
Kapitala .....		418.631	385.606	23.094	23.094	295.257	291.103
Jaulkipen prima.....		-	-	4.334	4.334	-	-
Erretserbak .....		32.676	32.676	12.872	10.860	-	-
Aurreko ekitaldietako emaitzak .....		(20.757)	(7.712)	-	-	(53.692)	(44.037)
Ekitaldiaren emaitza .....		(8.141)	(13.045)	1.514	2.012	(10.585)	(9.655)
Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak.....	A8	7.436	11.024	19.831	21.679	511.605	347.102
<b>PASIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>27.503</b>	<b>28.234</b>	<b>10.466</b>	<b>12.534</b>	<b>366</b>	<b>356</b>
Epe luzeko hornidurak .....	A9	5	57	2.754	3.098	366	356
Taldeko eta elkartutako enpresekiko epe luzeko zorrak	A11	24.607	23.890	-	-	-	-
Atzeratutako zergengatiko aktiboak.....		2.891	4.287	7.712	9.436	-	-
<b>PASIBO ARRUNTA</b>		<b>36.536</b>	<b>86.223</b>	<b>311.113</b>	<b>360.862</b>	<b>71.236</b>	<b>63.830</b>
Epe laburreko zuzkidurak.....		-	-	25.939	21.141	-	-
Epe laburreko zorrak .....	A10	-	2.523	227.407	247.614	57.813	53.423
Taldeko eta elkart. enpres. epe labur. zorrak .....	741	2.712	-	-	-	-	-
Merkatar. hartz. eta kobr. bte kntu batzuk .....	A10	35.795	80.988	57.767	92.107	13.423	10.407
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA</b>		<b>493.884</b>	<b>523.006</b>	<b>383.224</b>	<b>435.375</b>	<b>814.187</b>	<b>648.699</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

B. 2011 ETA 2010-EKO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	Eransk.	STC-ELS, SA		VISESA		ETS	
		2011	2010	2011	2010	2011	2010
Negoio zifratik zenbateko garbia .....	A14	1.406	1.206	107.334	131.611	38.417	31.057
Fabrik.amaitut. eta abiango produkt. izak. bariaz. ....		-	-	(36.712)	(34.048)	-	-
Enpresak aktiborako egindako lanak .....		-	-	374	-	-	-
Hornidurak.....	A13	-	-	(65.206)	(115.069)	(163)	(152)
Bestelako ustiaketa sarrerak .....	A14	35.643	89.654	2.950	6.027	17.276	18.307
Langileria-gastuak .....	A12	(5.291)	(5.699)	(3.259)	(3.566)	(14.519)	(14.634)
Bestelako ustiaketa gastuak .....	A13	(35.907)	(85.843)	(6.623)	(11.766)	(41.336)	(34.219)
Ibilgetuaren amortizazioa.....		(242)	(259)	(635)	(648)	(14.259)	(11.809)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egozte.....		4.268	3.711	5.344	31.999	3.667	883
Narriadura eta ibilget. emaitza eta bestel. emaitzak .....		(608)	(2.358)	-	348	113	408
Aparteko gastu eta sarrerak .....		-	-	-	-	(4)	(37)
<b>USTIAKETAREN EMAITZA</b>		<b>(731)</b>	<b>412</b>	<b>3.567</b>	<b>4.888</b>	<b>(10.808)</b>	<b>(10.196)</b>
<b>Emaitza finantzarioa</b>		<b>(6.014)</b>	<b>(14.269)</b>	<b>(2.466)</b>	<b>(2.427)</b>	<b>223</b>	<b>541</b>
Mozkinen gaineko zerga		(1.396)	812	413	(449)		
<b>EKITALDIAREN EMAITZA, ERAGIKETA</b>							
<b>JARRAITUETATIK ERATORRITAKOAK</b>		<b>(8.141)</b>	<b>(13.045)</b>	<b>1.514</b>	<b>2.012</b>	<b>(10.585)</b>	<b>(9.655)</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>		<b>(8.141)</b>	<b>(13.045)</b>	<b>1.514</b>	<b>2.012</b>	<b>(10.585)</b>	<b>(9.655)</b>

**ONDARE GARBIAN ALDAKETEN EGOERA, 2011-KO ETA 2010-EKO ABENDUAREN 31-N, MILAKO EUROETAN**

1.-AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTUEN EGOERA, 2011 ETA 2010-EKO EKITALDIEI DAGOKIENA Euroak milakotan

	STC-ELS, SA		VISESA		ETS	
	2011	2010	2011	2010	2011	2010
<b>A) Galera eta irabazien kontuaren emaitza</b>	<b>(8.141)</b>	<b>(13.045)</b>	<b>1.514</b>	<b>2.012</b>	<b>(10.585)</b>	<b>(9.655)</b>
<b>B) Ondare Garbiari zuzenean egotzitako sarrera eta gastuak guztira</b>						
	-	5.916	2.000	22.994	168.170	174.778
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak .....	-	8.216	2.788	31.926	-	-
Ondorio fiskala.....	-	(2.300)	(788)	(8.932)	-	-
Ibilgetuaren finantzaketa .....	-	-	-	-	168.170	174.778
<b>C) Galera eta irabazien konturako transferentziak</b>	<b>(3.589)</b>	<b>(3.828)</b>	<b>(3.848)</b>	<b>(23.039)</b>	<b>(3.667)</b>	<b>(883)</b>
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak .....	(4.985)	(5.316)	(5.344)	(31.999)	-	-
Ondorio fiskala.....	1.396	1.488	1.496	8.960	-	-
Ibilgetuaren finantzaketa .....	-	-	-	-	(3.667)	(883)
<b>AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(11.730)</b>	<b>(10.957)</b>	<b>(334)</b>	<b>1.967</b>	<b>153.918</b>	<b>164.240</b>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## STC-ELS, SA

### 2. ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA

Euroak milakotan

	Eskriturat. kapitala	Kapital eskatu gab.	Bestel. erretserb.	Aurreko ekit.	Jasotako diru-lag.		Guztira
				emaitza negatiboak	Ekitaldiaren emaitza	dohaintza eta legatuak	
<b>SALDOA 2010-EKO URTARRILAREN 1-EAN</b>	<b>340.581</b>	<b>-</b>	<b>32.676</b>	<b>(4.071)</b>	<b>(3.641)</b>	<b>8.936</b>	<b>374.481</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira.....	-	-	-	-	(13.045)	2.088	(10.957)
2009ko ekitaldiko emaitzaren banaketa .....	-	-	-	(3.641)	3.641	-	-
Bazkide edo jabeekiko eragiketak							
- Kapitalaren igoerak.....	55.050	(10.025)	-	-	-	-	45.025
<b>SALDOA 2011-KO URTARRILAREN 1-EAN</b>	<b>395.631</b>	<b>(10.025)</b>	<b>32.676</b>	<b>(7.712)</b>	<b>(13.045)</b>	<b>11.024</b>	<b>408.549</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira.....	-	-	-	-	(8.141)	(3.588)	(11.729)
2010eko ekitaldiko emaitzaren banaketa .....	-	-	-	(13.045)	13.045	-	-
Bazkide edo jabeekiko eragiketak							
- Kapitalaren igoerak.....	23.000	10.025	-	-	-	-	33.025
<b>2011-KO URTEKO AZKEN SALDOA</b>	<b>418.631</b>	<b>-</b>	<b>32.676</b>	<b>(20.757)</b>	<b>(8.141)</b>	<b>7.436</b>	<b>429.845</b>

## VIESA

### 3. ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA

Euroak milakotan

	Kapitala	Erretserbak	Jaulkipen saria	Ekitaldiaren emaitza	Jasotako diru-lag.		Guztira
					dohaintza eta legatuak		
<b>HASIERAKO SALDOA, 2010 URTEA</b>	<b>23.094</b>	<b>8.705</b>	<b>4.334</b>	<b>2.155</b>	<b>21.724</b>	<b>60.012</b>	
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira.....	-	-	-	2.012	(45)	1.967	
2009ko ekitaldiko emaitzaren banaketa .....	-	2.155	-	(2.155)	-	-	
<b>HASIERAKO SALDOA, 2011 URTEA</b>	<b>23.094</b>	<b>10.860</b>	<b>4.334</b>	<b>2.012</b>	<b>21.679</b>	<b>61.979</b>	
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira.....	-	-	-	1.514	(1.848)	(334)	
2010eko ekitaldiko emaitzaren banaketa .....	-	2.012	-	(2.012)	-	-	
<b>2011-KO URTEAREN AZKEN SALDOA</b>	<b>23.094</b>	<b>12.872</b>	<b>4.334</b>	<b>1.514</b>	<b>19.831</b>	<b>61.645</b>	



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ETS

### 4. ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA

Euroak milakotan

	Funts Soziala	Aurreko ek.	Jasotako diru-lag.		Guztira
		emaitza negatiboak	Ekitaldiaren emaitza	dohaintza eta legatuak	
<b>SALDOA 2010-EKO URTARRILAREN 1-EAN</b>	<b>291.103</b>	<b>(32.460)</b>	<b>(11.577)</b>	<b>173.207</b>	<b>420.274</b>
<b>Ondare garbiaren bestel. aldaketak 2010ean</b>					
- 2009ko ekitaldiko emaitzaren banaketa .....	-	(11.577)	11.577	-	-
2010eko ekitaldian aitortutako sarrerak eta gastuak guztira .....	-	-	(9.655)	173.895	164.240
<b>SALDOA 2011-KO URTARRILAREN 1-EAN</b>	<b>291.103</b>	<b>(44.037)</b>	<b>(9.655)</b>	<b>347.102</b>	<b>584.513</b>
<b>Ondare garbiaren bestel. aldaketak 2011n</b>					
- Gizarte Funtsaren igoera .....	4.154	-	-	-	4.154
- 2010eko ekitaldiko emaitzaren banaketa.....	-	(9.655)	9.655	-	-
2011ko ekitaldian aitortutako sarrerak eta gastuak guztira .....	-	-	(10.585)	164.503	153.918
<b>SALDOA 2011-KO ABENDUAREN 31-N</b>	<b>295.257</b>	<b>(53.692)</b>	<b>(10.585)</b>	<b>511.605</b>	<b>742.585</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

5. ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA 2011 ETA 2010-EKO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

		STC-ELS, SA		VISESA		ETS	
		2011	2010	2011	2010	2011	2010
<b>USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>(I)</b>	<b>(37.480)</b>	<b>37.170</b>	<b>22.615</b>	<b>(50.240)</b>	<b>17.592</b>	<b>(3.442)</b>
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....		(6.745)	(13.857)	1.101	2.461	(10.585)	(9.655)
<b>Emaitzaren doiketak</b>		<b>2.382</b>	<b>11.065</b>	<b>4.410</b>	<b>(19.937)</b>	<b>10.267</b>	<b>9.925</b>
- Ibilgetuaren amortizazioa.....		242	259	635	648	14.259	11.809
- Arrisku eta gastuetarako zuzkidurak.....		(51)	57	7.028	9.335	11	(51)
- Ibilgetuaren baja eta besterenganatzeengatik emaitzak.....		-	-	-	(348)	(113)	(409)
- Baliabide finantzarioen baja eta besterenganatzeagatik emaitza ..		-	-	(288)	-	-	-
- Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste gtu. batzuk.....		-	-	-	(62)	-	-
- Kapital diru-laguntzen egozketa.....		(4.985)	(5.316)	(5.344)	(31.999)	(3.667)	(883)
- Sarrera finantzarioak.....		(493)	(325)	(114)	-	(249)	(546)
- Finantza gastuak.....		717	1.605	2.868	2.489	26	5
- Narriaduragatiko balorazio-zuzenketak.....		6.502	14.597	-	-	-	-
- Bestel. sarrerak/gastuak.....		450	188	(375)	-	-	-
<b>Kapital arruntean aldaketak</b>		<b>(33.610)</b>	<b>39.637</b>	<b>21.606</b>	<b>(30.337)</b>	<b>17.687</b>	<b>(4.253)</b>
- Izakinak.....		-	-	30.466	7.767	-	-
- Zordunak eta kobratz. bst kontu batzuk.....		13.550	34.833	20.846	(24.408)	14.669	(2.830)
- Beste aktibo arrunt batzuk.....		4	(13)	38	(402)	-	-
- Hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk.....		(47.164)	4.817	(34.340)	(16.347)	3.018	(1.423)
- Beste pasibo arrunt batzuk.....		-	-	4.596	3.053	-	-
<b>Ustiaketa jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk</b>		<b>493</b>	<b>325</b>	<b>(4.502)</b>	<b>(2.427)</b>	<b>223</b>	<b>541</b>
- Interesen ordainketak.....		-	-	(2.910)	(2.488)	(26)	(5)
- Mozkinen gaineko zergaren ordainketa.....		-	-	(1.706)	-	-	-
- Interesen kobrantza.....		493	325	114	61	249	546
<b>INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>(II)</b>	<b>(40.054)</b>	<b>(37.804)</b>	<b>1.416</b>	<b>350</b>	<b>(185.039)</b>	<b>(156.759)</b>
Inbertsioek erag. ordainketak.....		(40.054)	(37.804)	(975)	(190)	(185.182)	(157.306)
Inbertsio ezagatik kobrantzak.....		-	-	2.391	540	143	547
<b>FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>(III)</b>	<b>30.502</b>	<b>47.060</b>	<b>(19.000)</b>	<b>48.461</b>	<b>149.460</b>	<b>165.110</b>
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....		33.025	45.025	1.165	37.639	149.460	165.110
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak.....		(2.523)	2.035	(20.165)	10.822	-	-
<b>ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA (I+II+III)</b>		<b>(47.032)</b>	<b>46.426</b>	<b>5.031</b>	<b>(1.429)</b>	<b>(17.987)</b>	<b>4.909</b>
Eskudirua edo baliokidea ekitaldi hasieran.....		71.023	24.597	5.186	6.615	33.180	28.271
Eskudirua edo baliokidea ekitaldi amaieran.....		23.991	71.023	10.217	5.186	15.193	33.180





Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOEN ETA SOZIETATE PUBLIKOEN 2011KO EKITALDIARI DAGOKION FISKALIZAZIOAREN**

### *I.- SARRERA*

*Euskal Autonomia Erkidegoko Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoen eta Sozietate Publikoen 2011. urteari dagokion Fiskalizazioaren Emaitei erantzuteko, erreferentziazko gaiaren inguruan erakunde bakoitzak egin nahi izan dituen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoan zentralizatu diren alegazioak eta justifikazioak aurkeztu dira txosten honetan.*

### **ALEGAZIOAK**

#### **STC-ELS**

### **II. IRITZIA**

#### **II.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

##### **II.1.1 LANGILEAK**

2.- 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 39/2010 Legeak mugatu egiten ditu sektore publikoko langileen kontratazioak ekitaldi horretan. Izan ere, 23.1 artikuluan ezartzen da sarbide berriko lanpostuetarako giza baliabideak birjartzeko tasa % 10 izango dela gehienez ere, eta betiere lehentasunezko kategoriak badira edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduari eragiten badiete.

STC-ELS sozietateak ez du 23.1 artikulua bete langile finkoak kontratatzeari dagokionez, hiru langileri eman baitie alta.

#### *ALEGAZIOAK*

*Euskal Autonomia Erkidegoko 2011. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen 2010eko abenduaren 23ko 5/2010 Legearen arabera, SPRI sozietaterako 2011ko ekitaldirako baimendutako plantilla 73 pertsonak osatu behar zuten, baina, ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailak onartutako Aurrekontu Aldaketa aurkeztuz, pertsona bat gehiago sartu zen, SPRI Taldearen Sozietateak berrantolatzeke prozesua gertatu zelako eta Grupo Centro de Empresas de Zamudio, SA Taldearen Sozietatea likidatu zelako eta SPRIk bere gain hartu zuelako Sozietate<sup>1</sup> horretako plantilla osatzen zuten pertsonetako bat. SPRIk ez du inoiz Eusko Legebiltzarrak baimendutako plantillaren muga gainditu, ezta Eusko Legebiltzarrak 2011ko ekitaldirako onartutako soldata-masaren aurrekontuaren muga ere, sozietatearen kanpoko auditoreek egindako eta Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak aurrekontua eta legezketasuna betetzeari buruz adostutako prozeduren txostenaren bitartez berretsitako azterketetan ikus daitekeenez.*

<sup>1</sup>

Gure txostenak, soil-soilik, abenduaren 22ko 39/2010 Legearen ez-betetzea aipatzen du, 2011rako Estatu Aurrekontu Orokorrak onesten dituen, langile kontratazioari dagokionez. HKEEren txostenean deskribatutako gorabeherak ez du plantillaren inongo aipamenik egiten, langile kontratazio berriak baizik. Hiru alta mugagaberi gagozko, kanpoko hautaketa enpresa baten bitartez hautatutakoak (ez dugu alta hauen artean Zamudioko Enpresa Zentroa, SATik etorritako pertsona aintzat hartu)



3.- STC-ELS, SA sozietateak enpresa espezializatu batekin kontratatu du langileak hautatzeko prozesua. Enpresa horrek deialdia argitara eman du eta izangaien azken zerrenda proposatu du. Sozietateak ez dio kontratatutako enpresari eskatu izangai horiek hautatzeko garaian berdintasunaren, merezimenduen eta gaitasunen printzipioak betetzen direla egiaztatzeko aukera ematen duen dokumentazioa aurkeztea; horregatik, ezin izan da egiaztatu printzipio horiek betetzen direla. 2011ko ekitaldian horrela egindako kontratazioak honako hauek izan dira: kontratu finkoko 3 pertsona.

Horrez gain, langileak hautatzeko kanpoko enpresek proposatutako izangaien azken zerrenda puntuen arabera ordenatuta dago eta ez da argitaratu kontratatutako pertsonarekin zer kontratu mota sinatuko den.

#### ALEGAZIOAK

*Sozietate publikoak, SPRI esaterako, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen aplikazio-eremutik kanpo daude, eta sozietate horiek beren langileekin duten harremana Lan Zuzenbidearen arauen bitartez arautzen da. Gainera, lan-arloko legerian araututako kontratuak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen aplikazio-eremutik kanpo daude (SPKLaren 4.1 a) artikulua).*

*Beraz, SPRI soilik Administrazioarako arautzen duten printzipio konstituzionalen mende egongo da (besteak beste, enplegua lortzeko garaian berdintasun-printzipioa, merezimendu-, gaitasun- eta objektibotasun-printzipioak, Espainiako Konstituzioaren 14., 23.2 eta 103.1 artikuluetan azaltzen direnak), baina printzipio horiek gauzatzeak edo betetzeak ez du esan nahi eskakizun espezifikoak daudela, eta inguruabarren eta bete nahi den postuaren arabera balioetsi behar da.*

*Publikotasunaren printzipioa bermatuta geratu zen hautaketa-enpresak iragarpenak argitara eman zituenean; izan ere, iragarpen haietan azaltzen zen hautaketa-prozesu bat egingo zela eta behar adinako zehaztasunez identifikatu ziren bete beharreko postuak eta gauzatu beharreko eginkizunak. SPRI ez zegoen behartuta iragarkian kontratu mota edo etorkizuneko lan-harremanari buruzko xehetasunak (adibidez, ordutegiak, baliabideak eta abar) zehaztera, baizik eta hautaketa-prozesuaren oinarritzko alderdiak zehaztera soilik zegoen behartuta, horrekin, erabat betetzen baitzen publikotasunaren printzipioa.*

4.- STC-ELS, SA sozietateak akordio bat sinatu du langile batekin langile horren kontratuaren hutsaltzea adostuz, eta akordio horren bitartez, 85.000 euroko kalte-ordaina eman zaio langileari, baina ezin da zehaztu langile horri lan-arloko araudiaren arabera zer zenbateko zegokion.

#### ALEGAZIOAK

*Kontratazio hori bidegabeko kaleratze baten bidez hutsaldu da, eta ez akordio bidez.*

*Langileak enpresan zuen antzintasuna eta kontratua hutsaldu zenean langileak jasotzen zuen soldata kontuan hartuta, eta une horretan bertan indarrean zeuden*

legeak aplikatuz, SPRIk ordaindu beharko zuen zenbatekoa (45 egun lan egindako urte bakoitzeko eta 42 hileko soldata gehienez ere) kalte-ordain gisa ordaindutako zenbatekoa baino handiagoa zen.

## II.1.2 ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

### STC-ELS, SA

8.- 587.418 euroren truke esleitutako 3 kontratutan, agirietan eskatzen den kaudimenak mugatu egiten du lehia. Horietako 2 kontratutan, zeinak bakoitza 190.000 euroren truke lizitatu baitziren, D kategoriako sailkapena eskatzen da, hau da, 600.000 euroko edo hortik gorako urtesaria. 1,4 milioi euroren truke lizitatutako hirugarren kontratutan adierazten da 2 milioi eurotik gorako urteko negozio-bolumena egiaztatzen duten enpresek soilik hartu ahal izango dutela parte lehiaketan (A.16.1 eranskineko A5 hutsunea).

#### ALEGAZIOAK

190.000 euroko kontratazioetarako eskatzen den Sailkapena egokia da enpresa motaren, Taldearen eta Azpitaldearen definizioari dagokionez. Egia da ez zela egokia fakturazio-zifraren arabera "kategoriari" dagokionez. B motakoak dira eta ez D motakoak. Nolanahi ere, interesa eduki zezakeen enpresa bakar batek ere ez zuen kontsultatu edo ez zuen eskatu oker hori zuzentzea, nahiz eta lizitazioaren zenbateko globala agirietan argitaratuta zegoen.

Jendeari telefono eta posta elektronikoko bidez arreta emateko Zerbitzua deituriko espedienteari dagokionez, espediente hori 2010eko ekitaldian esleitu zen, eta ez 2011koan. Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazi du kontratu hori 1,4 milioi euroren truke lizitatu zela; horregatik, 2 milioi eurotik gorako urteko negozio-bolumenaren zifra egiaztatzea ez da, gure ustez, neurriz kanpoko eta ez du negozioaren lehia mugatzen.

9.- 596.337 euroren truke esleitutako 4 kontratutan, izapidetzea eskaintzak eskatuz egin da, baina kontratu horien zenbatekoa dela medio, publizitatearekin izapidetu behar ziren (A.16.1 eranskineko B1 hutsunea).

#### ALEGAZIOAK

KZ Guneako ikastaroetarako laguntza Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan .....	Zerbitzua	Neg. pub. gabe.	85	80	B1
Metaposta publizitate-kanpaina irratian eta Interneten	Zerbitzua	Neg. pub. gabe	96	96	B1
Metaposta programa mantentzea eta hobetzea .....	Zerbitzua	Neg. pub. gabe	138	138	B1
Metaposta programa mantentzea eta hobetzea .....	Zerbitzua	Neg. pub. gabe	277	277	B1

KZGunea zentroen sarean autonomoentzako eta mikroenpresentzako ikastaroak koordinatzen laguntzeko kontratatutako zereginak modu desberdinean kudeatzen dira Gipuzkoako lurraldean alde batetik eta Arabako eta Bizkaiko lurraldeetan



bestetik. Zerbitzuetako bakoitzean 3 eskaintza eskatu ziren, eta bi enpresari esleitu zitzaizkien.

*Metapostari buruzko zereginak teknikoki desberdinak diren zerbitzuei dagozkie, eta, horregatik, bereizita kontratatu dira. Ez da ikusten harremana dagoenik Apps-en garapen-lanaren (zerbitzua Android edo beste sistema eragile batzuk dituzten telefono mugikorretara egokitzea), fitxategiak ETEekin trukatzeko pack-a garatzearen, Metapostaren informazio-sistema bidaltzaileen CPDetan erabat integratzearen edo Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteko Datuak Prozesatzeko Zentroan kokatutako Metaposta Sistema mantentzeko lanen artean, besteak beste.*

10.- STC-ELS, SA sozietateak enkargatutako kanpainetarako publizitate-baliabideak planifikatzeko eta kudeatzeko zerbitzuen kontratua, 116.960 euroren truke esleitu dena, erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuen gisara izapidetu da, baina agirietan aurreikusitako luzapenak kontuan hartzen baditugu, erregulazio harmonizatuaren mendeko kontratu gisa izapidetu behar zen; horrenbestez, ez da dagokion esleipen-prozedura aplikatu, eta publizitate-baldintzak ez dira bete eta lehiara mugatu dira (A.16.1 eranskineko A6 hutsunea).

#### ALEGAZIOAK

*"Kontratu-balioaren" nahiz esleipenaren zenbatekoek ez dute gainditzen, une honetan, erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratueterako, luzapenak barne, ezarritako muga, eta ez da esleitutakoaren gainean behar dena baino gehiago fakturatu. Txostenean aipatzen den ehunekoa kontratu horri beste kontratazio batzuei dagozkien gastuak egotzita kalkulatu da.*

11.- Metaposta zerbitzuaren erabiltzaileei euskarria emateko zentroaren zerbitzuak planifikatzea, prestatzea eta ematea xede duen kontratuan (prezio unitarioen arabera esleitu dena eta 90.162 euroren truke gauzatu dena), zatikatu egin da kontratuaren xedea, 30.981 euroko zenbatekoarekin fakturatu zelako; kontzeptu horiek ez ziren agirietan aurreikusi, baina kontratuari atxikita daude (A16.1 eranskineko E2 hutsunea).

#### ALEGAZIOAK

*Agirian azaltzen ziren zerbitzuak denbora-unitateak kontratatzean oinarrituta zeuden honako zeregin hauek gauzatzeko:*

- *Teleoperazio-zerbitzua: x euro/ordua.*
- *Ikuskapen- eta koordinazio-zerbitzua: x euro/ordua.*

*Zerbitzu hori lehenengo aldiz gauzatu zen bitartean, beste premia batzuk azaldu ziren, agirietan aurreikusi ezin izan zirenak. Esate baterako, Metaposta-sistemara sartzeko erabiltzaileen gakoak freskatzea, besteak beste. Agiriak Metaposta-zerbitzua jardunean eta produkzioan ez zegoenean diseinatu ziren. Zeregin horiek gero sortu dira, zerbitzua abian jarri ondoren; horregatik, geroago eskatu dira eta modu berezian.*



12.- 2006ko urrian lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zen hirugarren batekin STC-ELS, SA sozietatearen bidaiak kudeatzeko. Akordio hori 2006ko azaroaren 1ean jartzen zen indarrean eta urtebeteko indarraldia zuen, lau urtera arte luza zitekeena automatikoki, eta 2010eko azarora bitarte egongo zen indarrean. 2011n, 167.457 euro ordaindu dira lizitazio-espediterik gabe.

#### *ALEGAZIOAK*

Bidaiak izapidetzeko kudeaketa-akordioa kontratu txikitzat hartzen da, kontuan izanda bidaiak kudeatzeko hirugarren horren aurrean izapidetzen diren zenbatekoak ez direla hirugarren horri zuzeneko prestazioak gauzatzegatik ematen, baizik eta zerbitzu horren azken onuradunari, hots, konpainia aeronautikoei, trenbide-konpainiei, hotelei eta abarri egindako kontratazioen zenbatekoa emateko *ardura duen agente kolaboratzaile gisa ematen direla*.

*Zerbitzu horien kudeaketak eragiten duen benetako kostua, zerbitzuaren azken hartzaileei ordaindu beharreko zenbatekoa deskontatu ondoren 5.490,29 euro denez, ez da lizitazio-prozesurik egin behar.*

13.- Ikusi dugu 114.378 euroko gastuak daudela, eta kontratu txiki gisa izapidetu direla, baina kontratazioko barne jarraibideen arabera zegozkien prozeduren bidez izapidetu behar ziren (ikus A.17.1 eranskina).

#### *ALEGAZIOAK*

*Ikastaroak ematea mikroenpresei: 34.000 euro*

*2 enpresa kontratatatu ziren, 18.000 eurotik beherako zenbatekoen truke bi kasuetan; horrenbestez, bete dira SPRIn indarrean dauden kontrataziorako barne jarraibideak. Ez da ikusten ez-betetzerik dagoenik.*

### **II.1.3 BABESLETZA KONTRATUAK**

19.- STC-ELS, SA sozietateak lau babesletza-kontratu formalizatu ditu 789.491 euroren truke, eta zuzenean esleitu ditu, publikotasunik eta lehiarik gabe (A.19 eranskineko A hutsunea) eta ez dago sozietateak eta erakundeak egindako ekarpen ekonomikoaren kostuaren justifikaziorik, lortu beharreko hedapenaren emaitzei dagokienez (A.19 eranskineko B hutsunea).

#### *ALEGAZIOAK*

*A) Biospain ASEBIOren jabetzako ekitaldia da, hornitzaile bakarra da eta, horregatik, SPRIk lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuen ASEBIOrekin*

*Txosten bat erantsi da, eta, txosten horretan, lortutako emaitzak eta Biospain 2012 Bilbon egiteak izan zuen eragina azaltzen dira.*

*B) Fun&Serious Game Festival deituriko jaialdiaren babesletza: 169.000 euro.*



*Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazi du kontratu hori zuzenean esleitu dela, publikotasunik eta lehiarik gabe, baina egokia dela esatea ekitaldi horren babesletza gauzatu aurretik txosten tekniko bat egin zela. Txosten horretan "SPRIk "Fun&Serious Game Festival" jaialdiaren babeslea izateko zuen interesa justifikatzen duen memoria" azaltzeaz gain, "ekitaldiaren singularitasuna" zehazten eta egiaztatzen da. Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazi du ez dagoela egindako ekarpen ekonomikoaren kostuaren justifikaziorik, lortu beharreko hedapenaren emaitzei dagokionez, baina kontratuan zehazten dela babesletza jasoko duenak nola lagunduko duen Babeslearen publizitatean. Ildo horretatik, pressclipping txostena egin da, non Irratian, Telebistan, Interneten eta Prentsan dituzten eraginak zehazten diren. Hortaz, publizitatean duen eraginak gainditu egiten du babesletzaren balioa, eta babesletza kontzeptuan emandako zenbatekoaren eta erakunde babesleak hainbat bitartekotan lortutako publizitatearen balioaren arteko baliokidetasuna justifikatzen da.*

### **III.BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK**

Paragrafo honetan, ekonomia- eta finantza-arloko jarduera arautzen duten printzipioak betetzeari modu garrantzitsuan eragiten ez dieten hutsuneak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak aipatuko dira.

#### **III.2 LANGILEAK**

- STC-ELS, SA: Hiru langileren ordainsariak igo dira langile horiek eginkizun berriak betetzen dituztelako; horrez gain, helburuak betetzeagatiko ordainsari aldakorrak aitortu zaizkie. Ez da gauzatu soldata-igoera hori eragin duten eginkizunak bete ditzaketen langileen artean berdintasuna eta lehia bermatuko dituen prozedurarik, eta, gainera, ez da betetzen Sozietate horren lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena; hitzarmen horretan ez baitago jasota ordainsari aldakorra emango zaiela lan-arloko langileei, baizik eta zuzendariei emango zaiela.

Aipatutako langileetako bati dagokionez, igotako postuari dagozkion ordainsariak igo egin dira 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, ordainsari finkoak % 9, eta ordainsari aldakorrak % 47.

#### *ALEGAZIOAK*

*Erakundearen barruan, pertsona horiek bakarrik gauzatzen zuten eginkizun mota hori; horregatik, gure ustez ez da beharrezkoa barne-hautaketako prozesu bat egitea, lehiarik ez dagoelako, beste pertsona batzuek behar adinako kualifikazioa egiaztatzeko aukera izan dezaten.*



- STC-ELS, SA: Lan-arloko hiru langile finkori egindako kontratazioari dagokionez, langile horien lan-kontratuetan ezarrita daude hobari aldakorrak, Enpresa Zuzendaritzak une bakoitzean ezarritako helburuen arabera kalkulatuta daudenak, alegia; horrenbestez, ez da betetzen Sozietate honen lan-baldintzak arautzen dituen Hitzarmena, hor jasota baitago sozietateko zuzendariei ordainsari aldakorrak emango zaizkiela, ez, ordea, lan-arloko langileei.

#### ALEGAZIOAK

*Ordainsarien mekanismoa ez da hitzarmen arautzaileetan bildu behar, kontratuak langileekin negoziatzeko garaian Zuzendaritzak duen ahalmena baita.*

### III.3 ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

#### III.3.1 KONTRATAZIO ESPEDIENTEAK

Ekitaldi honetan esleitutako kontratazio-espeditenteak aztertu eta aurreko ekitaldietan esleitutako espeditenteen jarraipena egin ondoren (espeditente horiek A.16 eranskinean aztertu dira), honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

Kontrataziorako Barne Jarraibideak

#### STC-ELS, SA

Sozietatearen kontratazioko barne jarraibideek eskaintza bakarraren eskaera arautzen dute 50.000 eurotik beherako kontratuetan; horrenbestez, ez dira bermatzen erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuak arautzen dituen SPKL Legearen 175 a) artikuluan eskatzen diren printzipioak. Ikusi dugu 89.799 euroko gastuak daudela, eta kontratu txiki gisa izapidetu direla. baina dagokion prozedura bidez izapidetu behar ziren.(ikus A.17.1 eranskina).

#### ALEGAZIOAK

*Ez da egia SPRIren kontratazioko barne jarraibideetan aurreikusitako prozedurek ez dutela bermatzen SPKL Legearen 175. artikuluan eskatzen diren printzipioak beteko direla 50.000 eurotik beherako kontratuetan. Gertatzen dena da Herri Kontuen Euskal Epaitegiak SPRI herri-administrazioekin parekatu nahi duela, baina SPRI sektore publikoko erakunde bat da, herri-administrazioaren izaera ez duena.*

*SPKL Legean hainbat eskakizun-maila ezartzen dira bere aplikazio-eremu subjektiboan. Zehazki, sektore publikoko erakundeen barruan, SPKL Legean subjektuen hiru kategoria bereizten dira, eta subjektu horiek Legearen aginduekiko mendekotasun-maila desberdina dute: (i) herri-administrazioak; (ii) herri-administrazioak ez diren eta botere esleitzailak diren sektore publikoko erakundeak; eta, azkenik, (iii) herri-administrazioak ez diren eta botere esleitzailak ez diren sektore publikoko erakundeak.*

*SPKL Legean aurreikusitako sailkapenaren arabera, SPRI herri-administrazioetat hartzen ez den botere esleitzaila da.*



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*Herri-administrazioetat hartzen ez diren botere esleitzzaileek erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuak aplikatzeko orduan aplika daitekeen prozedura SPKL Legearen 175. artikuluan arautzen da, eta honela dio:*

*"Arau harmonizatupean ez dauden kontratuak esleitzean, honako xedapen hauek aplikatuko dira:*

*a. Esleipena, publikotasun, lehia, gardentasun, isilpekotasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioen pean egingo da.*

*b. Atal honetan aipatzen diren erakundeetako organo eskudunek nahitaez bete beharreko jarraibideak onartuko dituzte beren etxe barrurako, eta, bertan, kontratazio-prozedurak arautuko dira, aurreko idatz-zatian aipatzen diren printzipioen eraginkortasuna bermatuz eta kontratua ekonomiaren aldetik abantailatsuen den eskaintza aurkezten duenari esleituz. Arautzen dituzten kontratuen esleipen-prozeduretan parte hartzeko interesa duten guztien eskura jarri behar dira jarraibide hauek, eta entitatearen kontratatzaile-profilean argitaratu behar dira.*

*Estatuaren sektore publikoaren esparruan, Estatuko abokatutzaren alde aurreko txostena beharko da jarraibideak onartzeko.*

*c. 50.000 eurotik gorako zenbatekoa duten kontratuen lizitazioari buruzko informazioa entitatearen kontratatzaile-profilean argitaratuz, publikotasun-printzipioaren betekizunei erantzun zaiela joko da, kontrataziorako barne-jarraibideek hedapenerako beste bide batzuk, ordezkioak edo gehigarriak, ezartzearen kalterik gabe".*

*Agindu horren arabera, SPRIk erregulazio harmonizatutik jare egiten dituen kontratuek honako araubide honen mende daude:*

*(i) SPKL Legean ezarritako lizitazio-prozedurak ez zaizkie aginduz aplikatu behar herri-administrazioei; izan ere, legegilearen asmoa hori bazen espresuki jasoko zen arauan.*

*(ii) Esleipen-prozedurak ezartzeko jartzen den muga bakarra publikotasunaren, lehiaren, gardentasunaren, isilpekotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak kontuan hartzea da.*

*(iii) Ulertzen da publikotasuna betetzen dela iragarkia profilean txertatzen bada, baina publikotasuna 50.000 eurotik gorako kontratuei soilik eskatzen zaie; beraz, kontrako zentzuan, zenbateko txikiagoko kontratuentzat ez da beharrezkoa izango.*

*Horrenbestez, SPRIk askatasuna dauka erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuak esleitzeko prozedurak diseinatzeko garaian.*

*Publikotasunaren eta lehiaren printzipioei dagokienez, SPKL Legeak ez du printzipio horien irismenari buruzko zehaztasun handiagorik ezartzen, baina Kontratazioko Kontsulta Batzordeek horren inguruko doktrina finkatu dute; izan ere, publikotasunaren eta lehiaren printzipioak eskatzearen inguruan honako funtsezko irizpide hauek ezarri dituzte:*



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

(i) Kontratazioan publikotasunaren eta lehiaren printzipioak kontuan hartzeko betebeharrak ezin du ekarri SPKL Legean ezarritako kontratazio-prozedurak, hala badagokio, aplikatu behar izatea.

(ii) Publikotasunaren eta lehiaren printzipioak modu malguan eta eragiketa bakoitzaren izaera berezira egokitutako arrazoizko moduan hartu behar dira kontuan. Azken batean, helburua zera da, esleipen arbitrarioak saihestea eraginkortasunaren irizpide objektiboen kontrakoak izateagatik.

(iii) Ez dago arau edo irizpide orokorrik printzipio horien aplikazioa kasu bakoitzean nola zehaztu behar den jakiteko. Sozietateari berari dagokio gai hori lantzea kasu bakoitzaren inguruabar berezien arabera.

Era berean, Aragoiko Administrazio Kontratazioaren Kontsulta Batzordeak martxoaren 3ko 1/2008 Interpretazio Zirkularrean adierazi zuen erakunde horiek bete behar dituzten "printzipioen" aplikazioa ezin dela parekatu SPKL Legearen "aginduak" aplikatzearekin. Horrenbestez, onartzen diren kontratazioko barne jarraibideek egokitzat hartzen duten araubidea bildu ahal izango dute esleipen-prozeduren alorrean, betiere SPKL Legearen 175. artikuluan aipatzen diren printzipioak beteko direla bermatzen bada.

Laburbilduz, erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuei dagokienez, SPKL Legeak herri-administrazioetat hartzen ez diren botere esleiztaileen esku uzten du orokorrean aipatutako publikotasunaren eta lehiaren helburu horiek lortzeko egokiak diren prozedurak eratzea. Eta horregatik, ez daude behartuta herri-administrazioetarako aurreikusitako prozedura berak aplikatzea.

Aurrekoa ezarrita, kontratazioko barne jarraibideetan aurreikusitako prozedurak, eta, bereziki 1. mailetakoak (50.000 euroko edo beheragoko balioa duten kontratuak, kontratu mota edozein izanik ere) labur aztertzea besterik ez dago legera erabat egokitzen direla ondorioztatzeko; izan ere, kontuan hartzen dituzte publikotasunaren eta lehiaren printzipioak.

1. mailako kontratuei dagokienez, kontratazioko barne jarraibideek eskaintza bakar bat eskatzeko aukera aurreikusten dute. Arrazoia zera da, ohiko kontratazio-espeditente bat izapidetzeak SPRi eta egon litezkeen lizitatzaileei eragingo lizkiekeen gastuak kasu honetan ez liratekeela konpentsatuko, kontratuaren prezioa huskeria delako. Azken batean, kontratazioa arindu nahi da, baina horrek ez du ekarri behar, inondik inora, kontratazio publikoa arautzen duten printzipioen murrizketa.

Sistema hau SPKL Legearen 122. artikuluan herri-administrazioentzat arautzen denaren berdin-berdina da, salbuespen bakarra izanik zerbitzuen kontratuentzat zenbatekoa igotzen dela. Agindu hau kontratu txikiei buruzkoa da; 50.000 eurotik beherako zenbatekoa duten kontratuak hartzen dira halakotzat, obra-kontratuak direnean, edo 18.000 eurotik beherako zenbatekoa dutenak beste kontratu batzuk direnean. SPKL Legearen arabera, kontratu bat bere zenbatekoaren arabera kontratu txiki gisa sailka daitekeenean, izapidetze-prozedura sinplifikatu bat ezartzen da eta "zuzenean esleitu dakioke edozein enpresabururi".



*Prozedura horren oinarria administrazio-jardunaren eraginkortasun- eta efizientzia-printzipioan dago; izan ere, ohiko esleipen-prozedurak dakartzan denbora- eta diru-gastu handiak ez dira justifikatzen kontratuaren zenbatekoa murrizta denean, kasu honetan gertatzen den bezala.*

*Beraz, kontratazioko barne jarraibideetan araututako prozedura, kontratu publikoen legeriara egokitzeaz gain, SPKLk herri-administrazioentzat aurreikusitakoaren antzekoa zen, eta ezin da ondorioztatu arau-haustea dagoela zerbitzuen eta horniduren kontratuarentako muga 18.000 eurotik 50.000 eurora igotzeagatik, SPKLaren 175. artikulua erabateko askatasuna ematen baitu muga horretaraino.*

*Azken batean, SPRIren kontratazioko barne jarraibideetan aurreikusitako prozedurak bermatzen du SPKL Legearen 175. artikuluan eskatzen diren printzipioak beteko direla 50.000 eurotik beherako kontratuetan.*

## STC-ELS, SA

- 1,2 milioi euroren truke esleitu diren 7 kontratutan, prezio-irizpidearen haztapena ez da finkoa, aldakorra baizik, benetan aurkeztutako eskaintzen arabera baita; horregatik, agirietan esleitutako haztapena indargabetuta geratzen da (A.16.1 eranskineko A1 hutsunea).

### ALEGAZIOAK<sup>2</sup>

#### A) COMPITE BITARTEKO AGENTEEN DINAMIZAZIOA

*Agirian ezartzen den haztatze modua egokia da legeriak ezarritako helburuak lortzeko. Irizpide hori matematika-formula baten bitartez haztatzen da, eta horri esker lizitatzailer bakoitzaren balioespen objektiboa egin daiteke eta, era berean, hartutako zehurtasun-irizpidea indartzen du egon litekeen "ausarkeriazko bajaren" ondorioak arintzea ahalbidetzen duelako.*

#### B) LEHIAKORTASUNERAKO ALDAKETA KUDEATZEKO PROZESUA

*Agirian ezartzen den haztatze modua egokia da legeriak ezarritako helburuak lortzeko. Irizpide hori matematika-formula baten bitartez haztatzen da, eta horri esker lizitatzailer bakoitzaren balioespen objektiboa egin daiteke eta, era berean, hartutako zehurtasun-irizpidea indartzen du, egon litekeen "ausarkeriazko bajaren" ondorioak arintzea ahalbidetzen duelako.*

*C) BILTEGIRATZE SISTEMA NAGUSIA EKIPAMENDUZ HORNITZEA; PUBLIZITATE BALIABIDEAK PLANIFIKATZEA ETA KUDEATZEA; IT TXARTELAREN ZIURTAGIRIA LORTZEKO AZTERKETA-PROBETARAKO KUDEAKETA; METAPOSTARAKO LAGUNTZA TEKNIKOA; JENDEARI TELEFONO ETA POSTA BIDEZ ARRETA EMATEKO*

<sup>2</sup> Pleguetan jasoa dagoen formula bidez, lizitazio aurrekontua berdintzen duen eskaintzak kontratuaren esleipendun egingo duen puntuazioa eskura dezake, eskaintza ekonomikoaren pisu erlatiboa desitxuratuz.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ZERBITZUA; METAPOSTAKO ERABILTZAILEENTZAKO EUSKARRI ZENTROAREN ZERBITZUA

*Prezio-irizpidearen haztapena finkoa da: 51 puntu. Puntu horiek formula baten arabera banatzen dira. Formula horretan balioetsi beharreko eskaintza ekonomikoaren prezioa eta prezio merkeena biltzen dira. Egia esan, aldagai horien arabera da, baina formula finko eta publikoan oinarrituta.*

- 828.973 euroren truke esleitutako 6 kontratutan, kontratuaren xedearekin zerikusirik ez duten alderdiak balioesten dira, hau da, lantaldea eta esperientzia (A.16.1 eranskineko A2 hutsunea).

### ALEGAZIOAK

#### A) COMPITE BITARTEKO AGENTEEN DINAMIZAZIOA

*Irizpideak honako hauek dira: prezio orokorra, gehieneko prezioa ordu bakoitzeko, proposatutako jardueren programa eta lan-plana, lantaldea eta pleguarekiko hobekuntzak. Horiek guztiak lanaren xedearekin lotuta daude. Beraz, ez da ezartzen lanaren xedearekin lotuta ez dagoen esleipen-irizpiderik, irizpide guztiak lanaren xedeari buruzkoak baitira.*

#### B) LEHIAKORTASUNERAKO ALDAKETA KUDEATZEKO PROZESUA

*Irizpideak honako hauek dira: prezio orokorra, eskaintzaren kalitatea, diagnostikoa egiteko sistema eta metodologia, tresna berritzaileen erabilera, lantaldea eta agiriarekiko hobekuntzak. Horiek guztiak lanaren xedearekin lotuta daude. Beraz, ez da ezartzen lanaren xedearekin lotuta ez dagoen esleipen-irizpiderik, irizpide guztiak lanaren xedeari buruzkoak baitira.*

#### C) IT TXARTELAREN ZIURTAGIRIA LORTZEKO PROBETARAKO KUDEAKETA; METAPOSTA ZERBITZURAKO LAGUNTZA TEKNIKOA, METAPOSTAKO ERABILTZAILEENTZAKO EUSKARRI-ZENTROAREN ZERBITZUA

*Informazioaren Sozietateari dagozkion kontratuetan (It txartelaren ziurtagiria lortzeko azterketa-probetarako kudeaketa, eta, beste alde batetik, Metaposta sistemarako laguntza teknikoa) eman beharreko zerbitzuarekin zuzenean lotuta dauden alderdiak balioesten dira. Argi dago hainbat irizpidek, "lantaldeak" esaterako, modu eraginkorrean eragiten dutela zeregin jakin batzuetan, "Metaposta Sistemarako Laguntza Teknikoa" zereginean, esaterako.*

- 738.811 euroren truke esleitutako 5 kontratutan, Baldintzen Agiri Orokorrean esleipen-irizpide orokorrak biltzen dira, hala nola proposatutako jarduera-programa eta lanerako plana (A.16.1 eranskineko A3 hutsunea).

### ALEGAZIOAK

#### A) COMPITE BITARTEKO AGENTEEN DINAMIZAZIOA



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*Agente horiek espezifikoak, neurgarriak eta zehatzak dira. Honako xede honi erantzuten dio: lizitatzailleak bermatu ahal izatea gaitasun teknikoa eta antolamenduzkoa duela kontratatu nahi den zerbitzu zehatzari dagokionez, eskatzen den guztia mugatuz, bereziki lizitazioaren eremuari dagokionez; horrez gain, kontratuaren xedea bera osatuko du.*

#### **B) LEHIAKORTASUNERAKO ALDAKETA KUDEATZEKO PROZESUA**

*Agente horiek espezifikoak, neurgarriak eta zehatzak dira. Honako xede honi erantzuten dio: lizitatzailleak bermatu ahal izatea gaitasun teknikoa eta antolamenduzkoa duela kontratatu nahi den zerbitzu zehatzari dagokionez, eskatzen den guztia mugatuz, bereziki lizitazioaren eremuari dagokionez; horrez gain, kontratuaren xedea bera osatuko du.*

#### **C) IT TXARTELAREN ZIURTAGIRIA LORTZEKO PROBEN KUDEAKETA; METAPOSTA ZERBITZURAKO LAGUNTZA TEKNIKOA**

*Hainbat irizpide, hala nola proposatutako jarduera-programa edo lanerako plana ez dira irizpide orokorrak. Proiektuak zatitu daitezkeen zereginei ekiteko lanerako plana "zehazten" ote duten eta lan-egutegi baten proposamena argi eta garbi "definitzen" ote duten enpresek.*

- Jendeari telefono eta posta elektronikoko bidez arreta emateko zerbitzuak eskaintzeko kontratuaren agirietan 307.256 euroren truke esleitu da, ez da azaltzen lizitazio-aurrekontua, ezta kontratuaren gutxi gorabeherako balioa ere (A.16.1 eranskineko A4 hutsunea).

#### **ALEGAZIOAK**

*Kontratu hori 2010ean esleitu zen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak fiskalizatu zuen ekitaldi horretarako egindako lan gisa.*

*Argudiatu genuenez, lizitazio harmonizatua egitea erabaki zen, ez baitzen ezagutzen zein zen kontratazioaren azken zenbateko zehatza, dedikazio-orduen araberakoa baitzen, eta ez zen ezagutzen dei kopuru zehatza, ezta berrikusi beharreko espediente kopuru zehatza ere. Horregatik erabaki zen esleipena eskainitako dedikazio-orduen prezioaren arabera egitea, eta ez gutxi gorabeherako aurrekontu orokor baten arabera. SPRIk zeukan aurrekontua benetan egikaritu zena baino askoz handiagoa zen, sozietatearen gastuen guztizko egikaritzea ez zelako aurrekontukoa baino handiagoa izan. Indarreko legeak betetzeko asmoz, lizitazioa SARA gisa (prozesu irekia eta eskakizun gehiagokoa) egitea erabaki zen.*

- Guztira 704.204 euroan esleitutako 5 kontraturi dagokionez, pleguetan parte hartzeko eskabidea eta/edo eskaintzak aurkezteko ezarritako epea ez da nahikoa publikotasuna bermatzeko (A8 akatsa A.16.1 Eranskinean).

#### **ALEGAZIOAK**

##### **A) COMPITE BITARTEKO AGENTEEN DINAMIZAZIOA**



*SPRIk "on line" alerta-zerbitzu bat jarri du sektoreko enpresen eskura, eta zerbitzu horri esker, enpresek informazioa eduki dezakete denbora errealean. Horrez gain, jardun mota horretan adituak diren kontsultoretza-enpresek eginda daukate eskatzen den dokumentazio orokorraren zati handi bat eta adituak dira lizitatzen den gaia inplementatzen. Datu gisa adierazi behar dugu agiri honetara hiru enpresa aurkeztu zirela, eta 2010eko deialdian 5 enpresa aurkeztu zirela; horietatik soilik bik errepikatu zuten. Bestalde, Compite programa urte anitzekoa zenez, enpresa kontsultariak aurreikusitakoak zuten, hasieratik, gai horrekin lotutako kontratazioak argitaratuko zirela.*

#### *B) LEHIAKORTASUNERAKO ALDAKETA KUDEATZEKO PROZESUA*

*SPRIk "on line" alerta-zerbitzu bat jarri du sektoreko enpresen eskura, eta zerbitzu horri esker, enpresek informazioa eduki dezakete denbora errealean. Horrez gain, jardun mota horretan adituak diren kontsultoretza-enpresek eginda daukate eskatzen den dokumentazio orokorraren zati handi bat, eta adituak dira lizitatzen den gaia inplementatzen. Datu gisa, adierazi behar dugu agiri honetara lau enpresa aurkeztu zirela.*

#### *C) IT TXARTELAREN ZIURTAGIRIA LORTZEKO AZTERKETA-PROBEN KUDEAKETA*

*It txartelaren ziurtagiria lortzeko azterketa-proben kudeaketa. 7 eguneko epea parte hartzeko baimena eskatzeko. 14 eguneko epea eskaintza prestatzeko lizitazio hau argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Azterketa-probak zaintzeko zerbitzua da, eta eskaintza prestatzeak ez du konplexutasun teknikorik. 2 aste arrazoizko epea da.*

#### *BILTEGIRATZE SISTEMA NAGUSIA EKIPAMENDUZ HORNITZEA*

*7 eguneko epea parte hartzeko baimena eskatzeko. 14 eguneko epea eskaintza prestatzeko, lizitazio hau argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Eskaintza prestatzeak ez du konplexutasun teknikorik. 2 aste arrazoizko epea da.*

- Metaposta sistema mantentzeko, eusteko eta laguntza teknikoa emateko zerbitzuen kontratuari dagokionez (prezio unitarioen arabera esleitu da eta 190.000 euroren truke egikaritu da), espedientean ez da azaltzen kontratua sinatu aurretik Gizarte Segurantzarekiko eta ekonomia-jardueren gaineko zergarekiko zerga-betebeharrak beteta eduki behar direla aipatzen duen dokumentazioa (A.16.1 eranskineko B2 hutsunea)

#### *ALEGAZIOAK*

*Kontratua sinatu aurretik enpresak "Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroaren Ziurtagiria eta ziurtagiri horren indarraldiari buruzko deklarazioa" aurkeztu zuen. Aipatutako deklarazioa Kontratisten Erregistro Ofizialaren letratuak sinatu zuen. Ziurtagiri horretan azaltzen da Gizarte Segurantzarekiko eta ekonomia-jardueren gaineko zergarekiko zerga-betebeharrak bete dituela. Fitxategi bat erantsi da aipatutako dokumentazioarekin.*



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- 984.366 euroren truke esleitutako 7 kontratutan, txosten teknikoan ez dira argudiatzen irizpide bakoitzari esleitutako puntuazioak (A.16.1 eranskinaren C1 hutsunea).

#### ALEGAZIOAK

##### A) COMPITE BITARTEKO AGENTEEN DINAMIZAZIOA

*Kontratuaren xedean, helburuetan eta alderdi ekonomikoaren kasuan (matematikoki kalkulatua) oinarrituta dauden irizpideak direnez, puntuazio-prozesuak berak justifikatzen du emaitza.*

##### B) LEHIAKORTASUNERAKO ALDAKETA KUDEATZEKO PROZESUA

*Kontratuaren xedean, helburuetan eta alderdi ekonomikoaren kasuan (matematikoki kalkulatua) oinarrituta dauden irizpideak direnez, puntuazio-prozesuak berak justifikatzen du emaitza.*

*C) BILTEGIRATZE SISTEMA NAGUSIA EKIPAMENDUZ HORNITZEA; IT TXARTELAREN ZIURTAGIRIA LORTZEKO AZTERKETA-PROBEN KUDEAKETA; METAPOSTARAKO LAGUNTZA TEKNIKOA; METAPOSTA ERABILTZAILLEENTZAKO EUSKARRI ZENTROAREN ZERBITZUA*

*Balio-judizioari lotutako irizpideen haztapena arrazoituta dago, baina arrazoiketa horren subjektibotasuna irizpide horien definizioari atxikita dago. Balioetsitako enpresek balioespenak errekurritzeko aukera dute, baldin eta enpresa horien iritziz balioespenak ez badira errealitatera egokitzen. Ez da hori gertatu.*

### III.4 BESTE ALDERDI BATZUK

#### III.4.1 BERANKORTASUNA MERKATARITZA ERAGIKETETAN

Ordaintzeko legezko gehieneko epea —erakunde eta sozietate publikoek 2010eko uztailaren 7tik aurrera egindako kontratuei aplikatu dakiekeena— ezarrita dago, aldi baterako, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 5/2010 Legearen hirugarren artikulua hirugarren paragrafoan eta Bigarren Xedapen Iragankorrean. Epe horiek 55 egunekoak dira administrazioentzat eta 85 egunekoak SPKL Legean herri-administrazioentzat hartzen ez diren erakunde eta sozietate publikoentzat.

Horrez gain, Jaurkitzearen Kontseiluaren 2011ko apirilaren 12ko Akordio baten bidez ezartzen da EAeko Administrazio Orokorraren mendeko sektore publikoarentzat ezinbestekoa dela sektore horrek 2011ko bigarren seihilekoan egitea bere ordainketak, 40 eguneko gehieneko epean.

15/2010 Legean jasota dagoen Hirugarren Xedapen Gehigarrian ("Informatzeko betebeharrak") ezartzen da sozietate publikoek espresuki argitaratu beharko dituztela beren hornitzaileei ordaintzeko epeei buruzko informazioak beren urteko kontuen memorian.

STC-ELS, SA enpresak ez du bere hornitzaileei ordaintzeko epeei buruzko behar bezalako informazioa eman bere memorietan, herri-administrazioei aplikatu beharreko epeak hartu



baititu kontuan sozietate publikoentzat ezarritako 85 egunak kontuan hartu ordez; hori guztia uztailaren 5eko 15/2010 Legearen Bigarren Xedapen Iragankorraren arabera betiere.

#### ALEGAZIOAK

*Sozietatearen Urteko Kontuek, zeinak kanpoko auditore batek berrikusten baititu, argi eta garbi azaltzen dute "merkataritza-eragiketen berankortasuna", urteko kontu horiek egiteko aplikatu daitekeen legerian oinarrituta, kontu horietan egiazta daitekeenez.*

### III.4.2 EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

STC-ELS, SA enpresak, enpresa pribatu batekin sinatutako hitzarmen baten bidez, 300.000 euroko diru-laguntza eman du Euskal Autonomia Erkidegoko lehiakortasuna hobetzeko ekintza estrategikoen proiektua finantzatzera bideratuta. Diru-laguntza hori modu izendunean azaltzen da STC-ELS, SAREN ustiapen-aurrekontuan, eta aurrekontu hori EAEko Aurrekontu Orokorretan sartuta dago, baina Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 48.5 artikulua zehazten du sozietate publikoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta EAEko Aurrekontu Orokorrek finantzatzeko bestelako erakundeek (edozein izanik ere horien izaera edo forma juridikoa) publizitatearen, lehiaren eta objektibotasunaren printzipioetara egokituko dutela beren diru-laguntza jardura.

#### ALEGAZIOAK

*Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 49.7 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan azaltzen diren zuzeneko diru-laguntzei —modu izendunean esleitu direnei— ez zaizkie aplikatuko publizitatearen eta lehiaren printzipioak, arau orokorrekiko salbuespena baitira, hain zuzen ere<sup>3</sup>*

### III.4.3 HITZARMENAK

STC-ELS, SAK eta Metaposta, SAK 2011ko otsailaren 2an sinatu zuten lankidetzahitzarmenean, eta alderdien konturako prestazioen balioari dagokionez, erabaki zen Metaposta SAK gauzatu behar zuen ustiapenaren prezioa Metaposta SAK lortutako irabazien arabera izango zela eta zenbateko zehaztugabe batera mugatu zen; horregatik, ez da 2010eko Esparru Hitzarmenera egokitzen zehatz-mehatz; izan ere, hitzarmen horretan ezartzen da garapena akordio espezifikoaren bitartez gauzatzeko dela eta akordio horietan arautu eta zehaztuko direla baldintzak eta alderdien eskubideak eta betebeharrak, eta bertan jasotzen da bi sozietateen arteko lankidetzaren honako printzipio honetan oinarrituko

<sup>3</sup> Alegazioak aipagai duen EAEONALTBren 49.7 artikulua eta diru-laguntza zuzenei dagokienez, ez du aztertutako egoerarekin inongo loturarik. Aztertutako supostuarekin lotura duen artikulua 49.6.a da (diru-laguntza izendunak). Alabaina, sozietateari ezin zaizkio aipatutako artikulua ezarri, 48.5 artikuluan, bigarren paragrafoan xedatutakoaren indarrez.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

dela: proiektua ezartzeak eta garatzeak eragiten dituen arriskuak eta irabaziak partekatu egingo dira, baina STC-ELS, SAri ez zaio ezer ordaindu hitzarmena indarrean egon den lehenengo urtean (Ikus A20 eranskina).

#### *ALEGAZIOAK*

*METAPOSTA, SAk ekitaldi honetan ez dio ezer ordaindu SPRi bi erakundeek sinatutako akordioetan ezarritako baldintzak oraindik ez direlako bete. Zehazki, honako metodo hau ezarri da:*

*"Metapostaren cash-flowaren bi herenen parekoa den zenbatekoa ordaintzea urtero SPRi, betiere ekitaldi bakoitzaren amaieran auditatutako urteko kontuak erreferentziatzat hartuta, eta Metaposta, SAk emaitza positiboak lortzen baditu. Konpainiaren Funts Propioak harpidetutako eta ordaindutako Kapital Sozialaren parekoak edo handiagoak direnean aplikatuko da irizpide hori.*

*Horrez gain, hitzarmenak eta horren berrikuntzek zehazki jasotzen dituzte metatutako zenbatekoak, hots, METAPOSTAk SPRi ordaindu beharko dizkionak baldintza horiek betetzen direnean; hortaz, argi dago zenbatekoa ez dela "zehaztugabea" baizik eta finkoa dela, eta, gainera, bi alderdiek ezagutzen dutela, eta urtero eguneratzen dela.*



## ALEGAZIOAK

### VIESA

#### II. IRITZIA

##### II.1. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

##### II.1.2 ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak aztertutako gastuak berrikusi ondoren, honako hau esan behar da:

14.- “2011ko irailaren 14ko Administrazio Kontseiluaren aktan onartu da, Zabalganako Babes Ofizialeko 288 etxebizitzan sustapenean obra entregatzeko garaian izandako atzerapenengatik ezarritako 808.168 euroko penalizazioari dagokionez, bi alderdiak ados jarrita, 350.000 euroko zenbatekoa atxikitzea baturan, eta 458.168 euro itzultzea berehala. Hartutako erabakia gauzatu da, baina ez da jardunaren objektibotasuna justifikatu, kasuari atxikitako arrisku juridikoak daudela erakusten duten eta akordio transakzionala sinatzea eta kalte-ordainaren zenbatekoa eragiten duen txosten teknikorik ez dagoelako.

#### ALEGAZIOAK

Eragozpen horiei buruz bi ohar:

1. *eranskin gisa, barneko txosten juridikoa —2011ko apirilaren 18koa— erantsi da. Txosten horretan Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutako puntuak aztertu ziren.*

15.- Kontratu txiki modura izapidetu diren 203.974 milioi euroren gastuak egin dira; ordea, Kontrataziorako Barne Aginpideen arabera zegokion prozedura bitartez izapidetu behar ziratekeen (Ikus A.17.2 Eranskina).

A.17.2	Milako euro	
KONTZEPTUA	Enpresa kopurua Zenbatekoa	
Hornidura elektrikoa .....	1	86
Hasitako sustapenak zaintzeko zerbitzuak.....	1	118
<b>GUZTIZKOA</b>	<b>2</b>	<b>204</b>

#### ALEGAZIOAK

Eragozpen horiei buruz bi ohar:

A.17.2	Milako euro	
KONTZEPTUA	Enpresa kopurua Zenbatekoa	
Hornidura elektrikoa .....	1	86

*Txostenean azaltzen den hornidura elektrikoa bat dator Iberdrola Generación, SAU enpresak honako kontzeptu hauengatik fakturatutakoarekin:*



1.- Egoitza nagusiko (Boulevard) elektrizitate-hornidura: 59.940,45 euro BEZik gabe.

2.- Artxibategiko (Blas de Otero kalea) elektrizitate-hornidura: 795,20 euro BEZik gabe.

3.- Bilboko merkataritza-bulegoko (Plaza Biribila) elektrizitate-hornidura: 1.577,83 euro BEZik gabe.

4.- Donostiako merkataritza-bulegoko (Pinudi Plaza) elektrizitate-hornidura: 6.751,41 euro BEZik gabe.

*Bizkaiko eta Gipuzkoako merkataritza-bulegoak errentamendu-erregimenean daudenez, VISESAk eutsi egiten die errentatzaileak kontratatutako merkaturatzaileei.*

### III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK

#### III.3 ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

##### III.3.1 KONTRATAZIO ESPEDIENTEAK

Kontrataziorako Barne Jarraibideak

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak aztertutako kontratazio-espedienteak berrikusi ondoren, honako hau esan behar da:

A. Espedienteak: A.1. Obrak: Babes Ofizialeko 176 Etxebizitza Salburuko 12. sektorean, Babes Ofizialeko 144 Etxebizitza Durangon, Babes Ofizialeko 126 Etxebizitza Amezolako 80-D lurzatian. Hornidura: altzarien eta etxetresna elektrikoen hornidura. Zenbatekoa: 40.600.000 euro.

- Prezio-irizpidearen haztapena ez da finkoa, aldakorra baizik, benetan aurkeztutako eskaintzen arabera; horregatik, agirietan esleitutako haztapena indargabetuta geratzen da.

##### ALEGAZIOAK

*Eragozpen horiei buruz bi ohar:*

*Obren kontratu publikoei buruzko 93/37 Zuzentarauaren 30. artikulua —obra-kontratuak esleitzeko irizpideak arautzen dituenak— honako hau ezartzen du bereziki:*

*«1. Botere esleitzalea honako irizpide hauetan oinarrituko da kontratuak esleitzeko:*

*a) edo soilik preziorik txikienean;*

*b) edo, esleipena ekonomikoki hoberena den eskaintzari ematen bazaio, hainbat irizpide izango dira, kontratuaren arabera aldatuko direnak: esate baterako, prezioa, egikaritze-epaia, erabileraren kostua, errentagarritasuna eta balio teknikoa.*

2. 1. paragrafoko b) letran azaltzen den kasuan, botere esleiztaileak erabiltzeko asmoa duen esleipen-irizpide guztiak, ahal bada, emango zaien garrantziaren beherezko ordenan, aipatuko ditu baldintza-agirietan edo lizitazio-iragarkian.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak aztertutako kontratuak ekonomikoki hoberena den eskaintzaren irizpidearen arabera esleitu ziren, eta irizpide hori metodo batzuk aplikatuz ikusi behar zen, eta parametro ekonomiko eta tekniko jakin batzuk oinarritzat hartuta, parametro bakoitzari haztapen-koefiziente bat emanaz; eta horiek guztiak baldintza-agirietan ez ezik, lizitazio-iragarkietan ere jaso behar dira.

Zehazki, irizpide ekonomikoa balioesteko VISESAk erabilitako formula ekonomikoari dagokionez, esan behar dugu kontratazioaren inguruko printzipio orokorrak (kontratazioan gardentasuna, tratu-berdintasuna, eraginkortasuna eta ekonomia izatea) betetzeari dagokionez araudian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela. Horrez gain, eskaintza merkeenari puntuaziorik handiena ematen dion formula da, ausarkeriazko baja ezartzea alde batera utzi gabe, eta modu proportzionalan aplikatzen zaie gainerako lizitazioei.

B. Espedientea: Proiektua eta zuzendaritza: Babes Ofizialeko 108 Etxebizitza + 63 Etxebizitza Sozial + Prezio Tasatuko 190 Etxebizitza Boluetan. Zenbatekoa: 997.500 euro.

- Kontratuaren xedearekin lotuta ez dauden alderdiak balioetsi dira, hala nola ISO 9001 ziurtagiriak eta lan-merkatuan sartu berriak diren profesionalak; agiriez ezinbestean bete beharreko betekizunak balioesten dituzte, hala nola indarreko araudia eta plangintza betetzea, eta kontratua epez kanpo (8 hilabete geroago) formalizatu da.

#### ALEGAZIOAK

*Eragozpen horiei buruz bi ohar:*

*ISO 9001 ziurtagiriak eta antzekoak balioesteari dagokionez, administrazio-klausulen agiriak ezartzen zuen balioespena egingo zela goi-mailako lanak egiaztatzen duenean lana egin dela; horretarako, kalitatea kudeatzeko sistema bat eta ekodiseinua kudeatzeko sistema bat aplikatuko dira. Irizpide horiei esker eskainitako lanen kalitatea balioetsi daiteke.*

*Agiriez nahitaez bete beharreko betekizunak balioesten dituztela dioen ideari dagokionez, aztertzen ari garen zerbitzuen lizitazioaren irismena argitu behar dugu. Proiektua idazteko eta obrak zuzentzeko kontratua da, Bilboko Boluetako eremurako. Nolanahi ere, lan horiek kontratatu zizkion VISESAk IDOM merkataritza-sozietateari 2005. urtean, beste etxebizitza kopuru eta hirigintza-ezaugarri batzuekin. Egungo espedientearen lizitatzailerik dagokienez, aurreko Egikaritze Proiektua eman zitzaizen eta aurreko proiektuari buruz lizitatzailerik egin zuten azterketa balioetsi zen, baita gaur egun indarrean dagoen araudira eta plangintzara egokitzen ote zen ere. Horrenbestez, ez zen balioetsi nahitaez bete beharreko betekizunak betetzen ote ziren, baizik eta aurreko proposamenaren azterketa eta egungo araudira egokitzen ote den balioetsi zen.*



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- C. Espedientea: A.3. Obrak: Babes Ofizialeko 176 Etxebizitza Salburuko 12. sektorean, Babes Ofizialeko 144 Etxebizitza Durangon, Babes Ofizialeko 126 Etxebizitza Amezolako 80-D lurzatian eta Proiektua eta Zuzendaritza: Babes Ofizialeko 108 Etxebizitza + 63 Etxebizitza Sozial + Prezio Tasatuko 190 Etxebizitza Boluetan. Zenbatekoa: 31.100.000 euro.
- Administrazio Klausulen Agirietan esleipen-irizpide orokorrak daude, hala nola zorrozatasuna eskaintzan, koherentzia eta kalitatea memorian.

#### ALEGAZIOAK

*Eragozpen horiei buruz bi ohar:*

*Honako hauek dira obra-agiriaren arabeko balioespen-irizpideak:*

1. Eskaintza ekonomikoa

*Agirian balioespen-formula definitzen da.*

2. Eskaintzaren zorrozatasuna

*Agirian balioesteko azpirizpideak definitzen dira eta azpirizpide horien arabera balioesten dira.*

3. Eskaintako bermeei buruzko hobekuntzak

*Agirian balioespen-formula definitzen da.*

4. Kalitateak hobetzea

*Agirian balioetsi beharreko kontzeptua definitzen da: "Gainprestazioak edo kalitate-igoerak balioetsi dira, Eraikuntza-proiektuan azaltzen direnekin alderatuta, baina soluzio arkitektonikoak aldatu gabe"*

*Proiektu-zerbitzuen eta zuzendaritzaren agirian azaltzen diren balioespen-irizpideak honako hauek dira:*

1. Eskaintza ekonomikoa

*Agirian balioespen-formula definitzen da.*

2. Hobekuntzak proiektu-fasearen epeetan

*Agirian balioespen-formula definitzen da.*

3. Lanen irismenari dagozkion gaitetiko prestazioak.

*Agirian balioesteko azpirizpideak definitzen dira eta azpirizpide horien arabera balioesten dira.*

4. Zorrozatasuna azterketan

*Agirian balioesteko azpirizpideak definitzen dira eta azpirizpide horien arabera balioesten dira.*

5. Proposamenaren zuzenketak eta hobekuntzak

*Balioesteko azpirizpideak definitzen dira agirian, eta azpirizpide horien arabera balioetsi da.*



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*Gai horri dagokionez, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren 2005eko azaroaren 24ko epaian (C331-04 gaian (ATI EAC Srl y Viaggi di Maio Snc y otro) ACTV Venezia SpA y otros sozietatearen aurka emandakoa eta 2008ko urtarrilaren 24ko Epai bidez berretsi dena, As. C-532/06 Emm. G.Lianakis AE y otros Dimos Alexandroupolis y otros sozietatearen aurka) honako hau adierazten da:*

*“Europako Erkidegoko zuzenbideak ez ditu eragozpenak jartzen kontratazio-mahai batek garrantzi espezifikokoak esleitzeko aurretik ezarritako esleipen-irizpidearen bigarren mailako elementuei, erakunde esleitzzaileak baldintza-agiria edo lizitazio-iragarria egin zuenean dagokion irizpiderako aurreikusitako puntu kopurua banatuz bigarren mailako elementu horien artean, betiere erabaki horrek:*

- *ez baditu kontratuaren esleipen-irizpideak, baldintza-agirian definitzen direnak, aldatzen;*
- *eskaintzak prestatu zirenean ezagutzen ziren elementuak —prestakuntza horretan eragina izan lezaketena— ez baditu;*
- *eta erabaki hori lizitatzaileraren baten kaltetan bereizkeriazko ondorioa izan lezaketena elementuak kontuan izanda hartu ez bada.”*

*Guri dagokigun kasuan, irizpideak eta azpirizpideak definituta eta haztatuta daude baldintza-agirian.*

D. Espedientea: A.7. Obrak: Babes Ofizialeko 176 Etxebizitza Salburuko 12. sektorean, Babes Ofizialeko 144 Etxebizitza Durangon, Babes Ofizialeko 126 Etxebizitza Amezolako 80-D lurzatian. Zenbatekoa: 30.200.000 euro.

- Ebalua daitezkeen irizpideen arabera eskaintzen ebaluazioa ez da formularik gabeko irizpideen ebaluazioaren ondoren gauzatu.

#### *ALEGAZIOAK*

*Eragozpen horiei buruz bi ohar:*

*VISESAk, 2012. urteaz geroztik, bere kontratazio-prozedurak egokitu ditu, eskaintza ekonomikoaren zorroztasuna formula bidez ebalua daitezkeen irizpideen arabera.*

E. Espedientea: C.1. Obrak: 176 BOE Salburuko 12. sektorean, 144 BOE Durangon eta 126 BOE Amezolako 80-D lurzatian. Hornigaiak: altzariak eta etxetresna elektrikoak. Zerbitzuak. Zenbatekoa: 40.600.000.

- Txosten teknikoan ez dira argudiatzen irizpide bakoitzari emandako puntuazioak.

#### *ALEGAZIOAK*

*Eragozpen horiei buruz bi ohar:*



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*Erreferentziazko obra-lizitazioei dagokienez, 5, 6 eta 7. eranskin gisa gehitu dira balioespena banakatzen duten Excel taulak eta irizpide bakoitzari esleitutako puntuazioen inguruko argudioak ematen dituztenak.*

*Erreferentziazko hornidura-lizitazioari dagokionez, txostenak paragrafo bakoitzean banakatzen ditu balioespen-irizpide bakoitzean esleitutako puntuen argudioa, eta 8. eranskingisa gehitu da.*

F. Espedientea: C.2 Obrak: 176 etxebizitza sozial Salburuko 12. sektorean. Zenbatekoa: 11.600.000 euro.

- Txosten teknikoan ez dira behar bezala balioetsi Baldintzen Agiri Orokorrean ezarritako esleipen-irizpideak, Baldintzen Agiri Orokorrean saldu ondorengo zerbitzuaren irizpideari esleitutako puntuak ez direlako behar bezala hainbanatu.

#### ALEGAZIOAK

*Eragozpen horiei buruz bi ohar:*

*Paragrafo horretan azaltzen diren lizitatzailleen eskaintzek erakusten dute desberdintasun oso handia dagoela; izan ere, saldu ondoko zerbitzuaren luzapena 0 hilabetetik 10 urtera bitartekoa da, eta hobekuntza gehigarriak eskaintzen dira, esate baterako, gorabeherei arreta emateko lantaldean edo gorabeherei arreta emateko epean. Hortaz, balioespen-txostenak eskalak ezartzen ditu saldu ondoko zerbitzua luzatzen den urteen arabera, VISESArentzat mantentze-lanak duen interesaren eta hobekuntza gehigarrien eskaintzen arabera, eta puntu horiek ezin dira eman formula lineal proportzionala kontuan hartuta.*

G. Espedientea: E.1 Obrak: Babes Ofizialeko 144 Etxebizitza Durangon. Zenbatekoa: 10.400.000 euro.

- Zuinketa-egiaztapenak lau hilabetez gainditu du legezko epea kontratua formalizatu zenetik zenbatzen hasita.

#### ALEGAZIOAK

*Eragozpen horiei buruz bi ohar:*

*Dagokion obra-kontratua sinatu zenean, lurzattia 13,2 Kv-ko goi-tentsioko aireko linea batek zeharkatzen zuen. Zuinketa-akta egiteko eta obrak hasteko ezinbestekoa zen aipatutako linea kentzea. Baina linea hori kentzeko, Iberdrolak eskatzen zuen eremuko Hitzarmen Batzordeak egikaritzea transformazio-zentroaren obra zibila. Urbanizazio-obra hori atzeratu egin zen egoera ekonomikoaren aurrean Batzordeak zuen egoerarengatik.*

H. Espedientea: A eta B Obrak: San Frantziskoko Landako indusketa. Zenbatekoa: 749.147 euro.

- Ez dauka jasotze-aktarik eta 2,5 hilabeteko atzerapenez egikaritu da obra.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### *ALEGAZIOAK*

*Eragozpen horiei buruz bi ohar:*

*Erreferentziazko kontratua indusketako obra-kontratua da, eta, hortaz, ez dago egikaritutako obren jasotze formalaren egintzarik.*

*Obrak izan zuen bi hilabeteko atzerapena justifikatzeko, 10. eranskin gisa eskumeneko zuzendaritzaren laburpen-txostena eta atzerapenaren justifikazioa gehitu dira, baita luzapena eskatzeko kontrataren eskabideak, eta luzapena onartzen den bileretako aktak ere.*



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ALEGAZIOAK

### EUSKAL TRENBIDE SAREA

#### II. IRITZIA

#### II.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

##### II.1.1 LANGILEAK

1.- ETS Erakunde Publikoak bere lan-arloko langileen 2010eko abenduko ordainsariei eutsiko die. Ordainsari horiei ez zitzaion murrizketarik aplikatu, 2010eko defizit publikoa murrizteko ezohiko neurriak hartzea ezartzen zuen ekainaren 24ko 3/2010 Legean xedatzen zenaren arabera; hortaz, 2011ko Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 5/2010 Legearen 22.2 artikuluan ezarritakoa urratu da.

##### *ALEGAZIOAK*

*I.- 2011rako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 39/2010 Legearen 22.2 artikuluan ezartzen denaren arabera, Erakunde Publikoak ez du aplikatu inongo neurri 2010eko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.*

*II.- Herri Kontuen Euskal Epaitegira igorritako alegazio-idazkian honako hau adierazi genuen 2010eko ekitaldiari dagokionez:*

*“I.- Defizit publikoa murrizteko ezohiko neurriak hartzea xedatzen duen maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretua indarrean jartzearen ondorioz sortutako Euskal Autonomia Erkidegoko 2010. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen 3/2010 Legea, ekainaren 29koa, aplikatuz, Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoak Egokitzapen Plana aplikatu zuen 2010. urtean. Plan horrek langileen gastuak hartu zituen eraginpean, eta Plan hori “ordainsari-kontzeptu guztien gainean” aplikatzeak ekarri zuen “soldatei dagokienez, 2010eko ekitaldi honetan % 4ko murrizketa izatea aurrekontuekin alderatuta”. Hau da, soldatei dagokienez, ekainaren 24ko 3/2010 Legean xedatutako gutxitzeagatiko murrizketa handiagoa egin zen.*

*Horrez gain, Itzarri Borondatezko Gizarte-aurreikuspeneko Erakundera egindako enpresa-ekarpena % 3tik % 1,5era murriztu zen 2010eko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin.*

*Aurrekontuetako baimena kontuan hartuta, Langileen Gastu guztietan aurreikusitako gutxitzea % 5,5 izan zen.*

*II. Hori guztia Aurrekontuei buruzko abenduaren 23ko 2/2009 Legearen 23.10 artikulua esparruan egin zen. Artikulu horretan ezartzen da erakunde publikoak gaitasuna duela negoziazio kolektiboaren bitartez, 2010. urteari dagokion soldata-masaren gehieneko muga banaka banatzeko eta aplikatzeko.*

*Are gehiago, erakunde publikoak langileekin hitzartu zuen indarreko Hitzarmen Kolektiboa bi urtez luzatzea, eta hainbat xederen artean produktibitatea hobetzea ezarri zuen itundutako antolamendu-neurrien bitartez.*



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*III.- Aurreko guztiak bermatu zigun ezinbestekoa den bake soziala izango genuela, bereziki hain estrategikoa den sektore honetan, hots, garraioaren sektorean, eta, era berean, bermatu zigun ez zela segurtasun juridikoaren arabera judizializaziorik izango, eta hori bermatzen zen negoziazio kolektiborako eskubidea, sindikatu-eskubidearen funtsezko eskubidearen zati gisa, urratuko ez zelako.*

*IV.- Esanbidez aipatu behar da, eta hirugarren paragrafoari dagokionez, urriaren 28an eta Gatazka Kolektiboari dagokionez, Auzitegi Nazionalaren Lan-arloko Salak aho batez hartutako 0000128/2010 erabakia, zeinaren bitartez erabaki zen konstituzionaltasun-arazoa aurkeztea maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuari dagokionez, Konstituzio Auzitegiak ebatz dezala "Espainiako Konstituzioaren 7. eta 28.1 artikuluetan arautzen den sindikatu-eskubidearen funtsezko edukia urratu ote den edo ez negoziazio kolektiboaren eskubideari dagokionez" eta, era berean, ebatz dezala "berdintasun-eskubidea urratu ote den edo ez"; izan ere, 8/2010 Errege Lege Dekretuaren 9. Xedapen Gehigarrian ezartzen da RENFE, ADIF eta AENA Erakunde Publikoei ez zaiela soldata-murrizketa aplikatuko, salbu eta negoziazio kolektibo bidez alderdiek hura aplikatzea adosten badute, eta, analogiaz ETS ere hala da.*

*V.- Aurreko guztia dela medio, Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoaren ustez soldata-egokitzapena (2010eko ekitaldirako EAEko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legea aldatzen duen ekainaren 24ko 3/2010 Legean eskatutakoaren gaineratik) bete da, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailari hilero jakinarazi zitzaionaren arabera.*

*Era berean, egokitzapen hori egiten da negoziazio kolektiboaren bitartez Aurrekontuei buruzko 2/2009 Legearen 23. artikuluan arabera, eta horrek ekarri du segurtasun juridikoa bermatzea eta judizializazioak interes publikoetarako izan ditzakeen ondorio negatiboak saihestea; izan ere, ikusten dugunez, judizializazio hori gertatzen ari zen sektore publikoaren eremuan.*

*Halaber, erakunde publikoari ahalbidetu zion egokitzapenaren ildoan jarraitzea erakundearen produktibitatea etengabe hobetuz eta izaera estrategikoa duen sektorean bake soziala izanik.*"

2.- 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 39/2010 Legeak mugatu egiten ditu sektore publikoko langileen kontratazioak ekitaldi horretan. Izan ere, 23.1 artikuluan ezartzen da langile berrien lanpostuetarako giza baliabideak birjartzeko tasa % 10 izango dela gehienez ere, eta betiere lehentasunezko kategoriak badira edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduari eragiten badiete.

STC-ELS sozietateak ez du 23.1 artikulua bete langile finkoak kontratatzeari dagokionez, bost langileri eman baitie alta.

#### ALEGAZIOAK

Lanpostuak betetzeari dagokionez, txostenaren zirriborroan azaldutako ikuspuntu guztiei dagokienez, aipatu behar da orokorrean eta kasuak balioesten hasi aurretik, estaldura



*horiek trenbide-jarduerari (komunitatearen funtsezko zerbitzu publiko gisa) eutsiko zaiola bermatzeko behar diren langileekin egingo direla.*

*Puntu honetako alderdi batzuk balioesteko, nabarmendu behar dugu aipatu diren bost kontratazioen artetik kontratazio bat langile bat lanpostuz igotzeagatik geratu den lanpostu huts bat betetzeko egin dela, ezinbestekoa delako lanpostu hori betetzea, eta lekualdatze-lehiaketaren prozeduraren bidez egin dela. Lanpostu hori ETSren hitzarmen kolektiboaren 28. artikuluan ("Lanpostuak betetzea") eta II. Xedapen Gehigarrian ("Tragazkortasun-klausula") ezarritako prozedura aplikatuz bete da.*

5.- ETS: 2009. urteaz geroztik enpresako plantillan dagoen aldi baterako langile bati txanda-kontratu mugagabea egin zaio hautaketa-prozesurik egin gabe. 2009ko ekitalditik betetzen ari zen lanpostuaren deialdian adierazi zen aldi baterako lanpostua zela.

6.- ETS erakundeak 80.000 euroko kalte-ordaina eman dio kausa objektiboak direla medio kontratua amatu delako, baina ordaindutako kalte-ordainari ez dio legezko kasu bakar batek edo hitzarmenek eusten.

#### ALEGAZIOAK

*Puntu honetan ez gatoz bat kasu hau legezko edo hitzarmenezko kasu bakar batek ez diola eusten dioen ideiarekin. Alde batetik, aztertzen ari garen kasua Langileen Estatutuaren 52. b) artikuluan azaltzen diren zirkunstantzia objektiboen ondoriozko amaitzea da, eta amaitze horrekin batera soldatuko 20 eguneko kalte-ordaina eman behar da zerbitzuan emandako urte bakoitzeko. Horri ETS erakundearen hitzarmen kolektiboaren 74. artikuluko edukia aplikatzeagatik dagokion zenbatekoa gehitzen badiogu, ikusiko dugu kalte-ordainaren kontzeptupean eta Ezintasun Iraunkor Osoa deklaratzegatik asegurua aplikatzeagatik ordaindutako azken zenbatekoa bidezkoa dela.*

7.- ETSk 50.236 euro ordaindu ditu 55 urte bete eta ezintasun iraunkor erabatekoa izateagatik; ordea, 46.244 euro zegozkiokeen hitzarmenaren arabera; honenbestez, 3.992 euro gehiago ordaindu dira.

#### ALEGAZIOAK

*Bestalde, dagokion zenbatekoa kalkulatzeari dagokionez, ETS erakundearen hitzarmen kolektiboaren 59<sup>4</sup> artikuluko edukia aplikatuz, akatsen bat gertatu da*

<sup>4</sup> 59. artikulua "urrimen fisiko edo psikikoagatik lanpostuetara egokitzea", hirugarren paragrafoan honako hau dio: "Ezintasun iraunkor erabatekoa duten pertsonen lan kontratua 55 urte betetakoan etengo zaie eta II. Eranskineko taula bereziko antzinatasuneko 175 hileko eskuratuko dituzte..." Antzinatasun tauletan II. Eranskinak kalte-ordain, erretiro eta iraunkortasun sariaren ondorioetarako, kasu honi dagokion mailari 35,68 euro zenbatekoa aitortzen dio; horri 2009 eta 2010eko ekitaldietako KPI ezarritako gero, 37,04 mila euroren zenbatekoa egiten du, zeinari 175 hilekoak aplikatu behar zaizkion. Inongo unetan ez zaio betetako hirurteko eta laurteko kopuruari aipamen egiten.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*datuak lortzeari dagokionez, zeren datuak egiaztatu ondoren, esan behar baitugu lortzen den zenbatekoa 50.236 euro dela eta ez aipatzen den 46.244 euroko zenbatekoa.*

*Kalte-ordainaren emaitza formula hori aplikatu ondoren lortzen den emaitza da, eta honako zenbateko hauek:*

*antzinatasuneko 175 hileko ordainsari:*

*Eraginpeko langileak metatuta dituen laurtekoen eta hirurtekoen zenbatekoa kontuan hartuta:*

<i>laurteko kopurua: .....</i>	<i>7</i>
<i>Laurtekoaren zenbatekoa: 3.....</i>	<i>7,04.-euro</i>
<i>Guztira: .....</i>	<i>259,28</i>
<i>hirurteko kopurua: 1. Guztira: .....</i>	<i>27, 78.-euro</i>
<i>Guztira: 287,06.-euro * 175 hileko ordainsari</i>	<i>50.235,50.-euro</i>

## II.1.2 ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

### ETS

16.- 8,1 milioi euroren truke osagarri gisa izapidetutako eta obra nagusietako kontratistei zuzenean esleitutako bi obrek ez dituzte betetzen halakotzat hartzeko baldintzak, ez direlako ustekabeko inguruabarrak. Beraz, prozedura irekiak egin behar ziren, dagozkion kontratazio-espeditenteak izapidetuz (A.16.1 eranskineko A9 hutsunea).

17.- Arroako (Zestoa) mendi-hegala egonkortzeko obren kontratuan (140.278 euroren truke esleitu dena), obraren lizitazioa ez da aldizkari ofizialetan argitaratu, kontratazioko barne jarraibideetan adierazten denaren arabera (A.16.1 eranskineko B3 hutsunea).

#### ALEGAZIOAK

*Kontratazio Eskuliburuak irekita uzten du Erakunde Publikoak erabiltzen duen hornitzaile-erregistro espezifikoa (Protrans) inskribatutako operadore ekonomikoei eskaintza eskatzeko aukera; eta sistema hori erabiltzen da kontratu honetan<sup>5</sup>.*

18.- Kontratu txiki modura izapidetu diren 1,3 milioi euroren gastuak egin dira; ordea, Kontrataziorako Barne Aginpideen arabera zegokion prozedura bitartez izapidetu behar ziratekeen (Ikus A.17.3 Eranskina).

<sup>5</sup> 5. Bere KBAen 7.c artikulua aldizkari ofizialean argitara ematera behartzen du eta Protrans-en eskaintzak eskatzeko ahalduntzen du.

### II.1.3 BABESLETZA KONTRATUAK

19.- ETS erakundeak bost babesletza-kontratu formalizatu ditu 619.300 euroren truke, eta zuzenean esleitu ditu, publikotasunik eta lehiarik gabe (A.19 eranskineko A hutsunea) eta ez dago erakundeak egindako ekarpen ekonomikoen kostuaren justifikaziorik lortu beharreko hedapenaren emaitzei dagokienez (A.19 eranskineko B hutsunea).

#### ALEGAZIOAK

*Sinatutako akordioak bat datoz Gipuzkoako kirol-klubekin formalizatutako akordioekin, akordio horien ezaugarri nagusia euskal Administrazio Orokorren eskumenekoak diren ingurune geografiko honetan egikaritzen ari ziren trenbide-obrekiko, eta, oso bereziki, Euskadiko Trenbide Sare Berriaren obrekiko (Gipuzkoa) publizitate- eta gizarte-arloko oihartzuna lortzera bideratutako jardunak izanik. Euskadiko Trenbide Sare Berriaren obrei dagokienez, Sustapen Ministerioak eta Adifek aginduta, Eusko Jaurlaritzaren Sailak hartu zuen parte trenbide-egituraren eta -garraioaren alorrean, baita erakunde publikoak ere.*

*Herri Kontuen Euskal Epaitegiak emandako txostenean aipatzen da adierazitako kontratuak babesletza-kontratuak direla, eta kasu horretan, sektore publikoaren kontratazioa arautzen duen araudian aurreikusten dira publizitaterik gabe negoziatutako prozedurak. Kontratu horiek arrazoi teknikoak edo artistikoak edo eskusiba-eskubideak babestearekin lotutako arrazoiak direla medio kontratua soilik pertsona baten esku utz daitezkeen kasuak babesten dituzte; eta era horretan, justifikatuta egongo litzateke alderdi hori. Mota horretako gai batean lehia behartzeko ahalegin orok ekar lezake erakundeak oso jarduera desberdinekin, nekez homogeneiza daitezkeenekin edo homogeneizatu ezin direnekin nahastea, bai jardueraren aurrekontuari dagokionez nahiz lortu nahi den publizitate-hedapenari dagokionez. Pertsonak edo "intuito personaek" eragindako akordioak dira. Ekipoak, zeinekin dagozkion babesletza-akordioak sinatu ziren, akordio mota horiek sinatzeko gai ziren ekipotzat hartu ziren, Gipuzkoan eta Euskadiko gainerako lurraldeetan, bereziki, egiten diren hainbat kirol-ekitalditan parte hartzen dutelako.*

*Aipatutako klubekin gauzatutako baldintzak hainbat alditan negoziatu ziren ekitaldian, kirol-klub bakoitzaren ezaugarriak eta klub horiek parte hartzen zuten ingurune geografikoak kontuan hartuta, Euskadiko Trenbide Sare Berriaren obren marka ez ezik ingurunean garatzen ari ziren trenbide-obrak ere sustatzeko.*

## III. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK

### III.2 LANGILEAK

- 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 22ko 39/2010 Legeak mugatu egiten ditu sektore publikoko langileen kontratazioak ekitaldi horretan. ETS erakundea ez da 23.2 artikuluan ezarritakora egokitu, aldi baterako langile bat kontratatu duelako eta artikulua horretan aldi baterako langileen kontratazioa



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

salbuespenezko kasuetara edo larrialdiko eta atzeraezineko premiei erantzuteko mugatzen baita.

#### ALEGAZIOAK

*Puntu honetan adierazi behar dugu kontratazio horren helburua erakundeko langileek erretiro partzialak hartu izanaren ondorioz dauden premiei erantzutea dela, eta lanpostu horiek derrigorrez bete behar direnez, lan-poltsa batean dauden langileekin bete direla. Aipatutako lan-poltsa egindako kanpoko deialdia gainditu dutenekin osatuta dago.*

*Bestalde, adierazi behar dugu, halaber, ez kontratazio honekin ezta aurreko puntuetan aipatu ditugun kontratuekin ere ez direla gainditzeko erakunde publikorako aitortutako egiturazko plantillaren mugak.*

*Une honetan, komenigarria da berriz ere gogoratzea kontratazio horiek trenbide-zerbitzuari eusteko erabat ezinbestekoak diren lanpostuak betetzeko erakundeak duen premiari erantzuten diotela*

### III.3 ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

#### III.3.1 KONTRATAZIO ESPEDIENTEAK

Ekitaldi honetan esleitutako kontratazio-espeditenteak aztertu eta aurreko ekitaldietan esleitutako espeditenteen jarraipena egin ondoren (espeditente horiek A.16 eranskinen aztertu dira), honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

#### Kontratatorako Barne Jarraibideak

##### ETS

- 8 milioi euroren truke esleitutako 3 kontratutan, kontratuaren xedearekin lotuta ez dauden alderdiak balioesten dira, hala nola ISO ziurtagiriak, biltegiak, makineria eta ekipoak (A.16.1 eranskineko A2 hutsunea).

#### ALEGAZIOAK

*C22009625/P20010049; “Lasarte – Añorga tarteko instalazio elektrikoan, ekipo elektromekanikoan eta sarbide mekanizatuen muntaketak”.*

*Karatulan deskribatutako esleipen-irizpideetan ez da ikusten hutsune hori. (1. dok. Lizitazio-agiriaren karatula aurkeztu da).*

*Halaber, esleipen-txostenean deskribatzen da Herri Kontuen Euskal Epaitegiak aipatzen dituen gaien buruz enpresa bakoitza zer egoeratan dagoen, baina oso argi uzten du enpresari berari eragiten dieten gai horiek ez direla balioetsiko; benetan egiaztatzen dena da emandako puntuazioa bat datorrela eskaintzarekin berarekin, eta gai horiek behar bezala identifikatuta daudela txostenean agirien arabera.*

*C22009626/P20009853; “Mendi-hegala egonkortzeko obrak Arroan, PK 76/230, Zestoan”.*



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*Ez da ikusten hutsunerik dagoenik karatulan deskribatutako esleipen-irizpideetan. (2. dok. Lizitazio-agiriaren karatula aurkeztu da).*

*Esleipen-txostenean balioetsi diren gaiak agirietan ezarritako irizpideei erantzuten diete, eta lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzen arabera dagokien puntuazioa lortu dute. Eta finkatutako irizpideek (ordenamendu juridikoak ezartzen dituenak) ez dituzte aurkeztutako eskaintzarekin lotutako alderdiak gehitzen.*

*C22009281/P20009442; “Mantentze-lan mekanizatua trenbidean ETSren trenbideetarako”.*

*Kaudimen gisa eska daitekeen oinarritzkoa gainditzen duen makineria astunaren errendimenduak eta gaitasun teknikoak —lana egikaritzen lagun dezaketenak— balioetsi dira. Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ez du zalantzan jarri erabilitako esleipen-irizpidea, eta hori guztia kontuan hartuta, interesgarria da hark egindako balioespena, kontratuaren xedearekin oso lotuta dagoena; izan ere, errendimendu eta/edo gaitasun desberdinak izan ditzakeen makineria espezifikoa da, eta errendimendu eta/edo gaitasun horiek eragin dezakete lanak egikaritzeko garaian.*

*(3. dok. Agiriaren karatula eta Agindu Tekniko Partikularren Agiria aurkeztu dira).*

- 9,3 milioi euroren truke esleitutako 5 kontratutan, Baldintzen Agiri Orokorrean esleipen-irizpide orokorrak biltzen dira, hala nola eskaintzaren zorrotasuna, koherentzia eta memoriaren kalitatea (A.16.1 eranskineko A3 hutsunea).

#### ALEGAZIOAK

*C22009625/P20010049; “Lasarte – Añorga tarteko instalazio elektrikoan, ekipa elektromekanikoen eta sarbide mekanizatuen muntaketak”.*

*Kalitate-irizpidea (0 puntutik 45 puntura) 4 paragrafotan garatu da, eta balioetsi beharreko alderdiak argi eta garbi definitu dira.*

*Era berean, lanen programazioa balioetsi da (0 puntutik 30 puntura) karatularen 23. paragrafoan eskatutakoaren arabera. Paragrafo horretan ezartzen da lizitatzailleek zer zehaztu behar duten lanak egikaritzeko bide kritiko bakoitzaren programazioa aurkezten denean.*

*(1. dok.: Karatula aurkeztu da.)*

*C22009588/P20012044; “Loiola-Herrera tartearen obra zibilerako bloc stedef trabesen hornidura”.*

*Puntuazioa honela banatzen da: 75 puntu eskaintza ekonomikoari eta 25 puntu trabesak fabrikatzeko sistemen kalitateari, baita erabilitako materialen kalitateari ere. Ildo horretan, agiri teknikoak eranskin bat gehitu du eta eranskin horretan hornitu behar den trabes mota fabrikatzeko prozesuaren zehaztapen teknikoa egin da.*

*(4. dok. Agiriak eta zehaztapen teknikoari buruzko eranskinak aurkeztu dira).*



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*C22009626/P20009853; “Mendi-hegala egonkortzeko obrak Arroan, PK 76/230, Zestoan”.*

*Ez da hutsune hori atzeman. 65 puntu eman zaizkio proposamenaren Kalitateari, behar bezala definitutako 5 azpirizpidetan zatituta eta dagokion puntuazioa.*

*(2. dok. Karatula aurkeztu da).*

- 5,5 milioi euroren truke esleitutako 2 kontratutan, Baldintzen Agiri Orokorretan ez da lizitazio-aurrekontua gehitu, ezta kontratuaren gutxi gorabeherako balioa ere (A.16.1 eranskineko A4 hutsunea).
- 5,3 milioi euroan esleitutako kontratu batean, formula bidez neurgarriak diren irizpideen arabera eskaintzak ebaluatzea ez da formularik gabe irizpideen ebaluazioa gauzatu ondoren egiten (A7 akatsa A.16.1 eranskinean).

#### ALEGAZIOAK

*Erakundearen Administrazio Kontseiluak onartutako ETS-RFVren kontratazio-prozeduraren eskuliburuaren arabera, honela jardun da: A gutun-azala ireki ondoren eta lizitatzailerik beharrezkoak diren kaudimen ekonomikoaren eta teknikoaren baldintzak betetzen dituztela egiaztatutakoan, B gutuna —proposamen ekonomikoa eta teknikoa egiten dituen— ireki da. Arduradun teknikoek egin dute esleipena proposatzeko txostena, eta txosten horretan puntuazio ekonomikoa nahiz teknikoa bildu dira, baina ez dira bi prozesu bereizi denboran balioespen hauetarako.*

- Lasarte-Añorga tarteko instalazio elektrikoak, ekipo elektromekanikoak eta sarbide mekanizatuak muntatzeko obra-kontratuari dagokionez (2,5 milioi euroren truke esleitu dena), derrigorrean bete beharreko baldintzak balioesten dira agirietan, hala nola segurtasun- eta osasun-plana (A.16.1 eranskineko A10 hutsunea).

#### ALEGAZIOAK

*2012. urteaz geroztik, hutsune hau ez da obrak lizitatzeko karatuletan sartzen .*

- ETSren trenbideetarako bidearen mantentze-lan mekanizatuaren kontratuari dagokionez, (5,3 milioi euroren truke esleitu dena) txosten teknikoak ez ditu behar bezala balioesten Baldintzen Agiri Orokorrean ezarritako esleipen-irizpideak, proposamenaren kalitate-irizpidea 40 puntuko lote batekin balioetsi diotelako hirugarren bati, eta beste lote batean 45 punturekin, baina proposamenaren kalitatearen deskribapenak berdin-berdinak dira bi loteetan. (A.16.1 eranskineko C2 hutsunea). Horrez gain, kontratua ezarritako epea baino 1,5 hilabete geroago formalizatu da (A.16.1 eranskineko D2 hutsunea).

#### ALEGAZIOAK



*Deskribapena ez da oso zehaztua. Puntu desberdinak eman dira lizitatzailerik horrek egindako proposamena, bi loteetan berdina bada ere, teknikariaren iritziz lote horretarako agirian eskatzen zena hobeto egokitzen zelako, eta, horregatik, teknikariak puntuazio gehiago eman dio lote bati besteari baino.*

*Behin eta berriz egiten diren mantentze-kontratuak dira, eta jarraitutasun bat eman behar zaie trenbideen mantentze-lanak ezin direlako eten. Aurreko kontratua 2011ko abuztuaren 17an bukatu zen, eta data horretan azterketa honen xede den kontratua sinatu zen. Hortaz, esleipena behar adinako aurretiaz gauzatu zen aurreko kontratua amaitzen zenerako kontratu bat ezarrita eduki ahal izateko.*

- Arroako (Zestean) mendi-hegala egonkortzeko obren kontratuari dagokionez (140.278 euroren truke esleitu zen), txosten teknikoan ez dira argudiatzen irizpide bakoitzari esleitutako puntuazioak (A.16.1 eranskinaren C1 hutsunea).

#### *ALEGAZIOAK*

*Ez da hutsune hori atzeman.*

*(6. dok.) Esleipenaren txosten teknikoa aurkeztu da, eta txosten horren 5. paragrafoan, hasiera batean, aurkeztutako eskaintza bakoitzaren deskribapena ikus daiteke, eta, ondoren, 7. paragrafoan eskaintzen konparaziozko azterketa bat egiten da balioespen-irizpideak kontuan hartuta; azterketa horretan eskaintza bakoitzak lortutako puntuazioa ematen da.*

- 8,1 milioi euroren truke esleitutako 2 kontratutan, horiei dagozkien esleipenak ez dira Erakundearen webgunean argitaratu (A.16.1 eranskineko D2 hutsunea).

#### *ALEGAZIOAK*

*Zuzendu da hutsunea.*

*WEBGUNEA erabili zen lehenengo urtean gertatu zen eta hutsegitez osagarriak ez ziren gehitu WEBGUNEAN argitaratutako tauletan.*

## ABREVIATURAS

BOE	Boletín Oficial del Estado.
CAE	Comunidad Autónoma de Euskadi.
CCAA	Cuentas Anuales.
DFA	Diputación Foral de Álava.
DFB	Diputación Foral de Bizkaia.
DFG	Diputación Foral de Gipuzkoa.
DLRPE	Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre el Régimen Presupuestario de Euskadi.
DOUE	Diario Oficial de la Unión Europea.
ETS	Euskal Trenbide Sarea.
GOVA	Gobierno Vasco.
IES	Instituto de Enseñanza Secundaria.
IIC	Instrucciones Internas de Contratación.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
LCSP	Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.
LPOHGVPV	Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.
PCG	Pliego de Condiciones Generales.
PTA, SA	Parque Tecnológico de Álava, SA.
PTSS, SA	Parque Tecnológico de San Sebastián, SA.
RD	Real Decreto.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
SARA	Sujeto a Regulación Armonizada.
SPRILUR, SA	Sociedad para la Promoción y Gestión del Suelo Industrial, SA.
STC-ELS, SA	Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SA. (antigua SPRI, SA).
TRLCSP	Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
TRRPE	Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi.
TSJPV	Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.
URA	Agencia Vasca del Agua.
VIIESA	Vivienda y Suelo de Euskadi, SA.
VPO	Vivienda de Protección Oficial



VPT Vivienda de Precio Tasado.  
VS Vivienda Social.



## I. INTRODUCCIÓN

El TVCP, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Plan de Trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha realizado la fiscalización de las CCAA de las sociedades STC-ELS, SA y VISESA y del ente ETS para el ejercicio 2011, incluidos en el ámbito de fiscalización de las Cuentas de los Entes Públicos de Derecho Privado y Sociedades Públicas de la CAE.

El artículo 7 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre por el que se aprueba el Texto Refundido de la LPOHGPV, tras la redacción dada por la Disposición Final Sexta de la Ley 5/2006, de 17 de noviembre, de Patrimonio de Euskadi, integra en la definición del sector público de la CAE: la administración general, la administración institucional (organismos autónomos y entes públicos de derecho privado), las sociedades públicas, las fundaciones del sector público de la CAE y los consorcios que revistan las características señaladas en la ley.

El trabajo a desarrollar no incluye la fiscalización de los entes públicos de derecho privado Osakidetza-Servicio Vasco de Salud y Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca (EITB), ni sus sociedades dependientes, por ser objeto de otro informe de fiscalización del TVCP. Exceptuando estas entidades, los entes públicos de derecho privado y las sociedades públicas en las que la Administración General de la CAE tiene un porcentaje de participación superior al 50% de su capital social son, a 31 de diciembre de 2011, 8 y 46 respectivamente, que se clasifican como sigue:

- Grupo STC-ELS, SA (\*): 26 sociedades.

En 2011 desaparecen las siguientes sociedades: Aiara Haraneko Industrialdea, SA, Lautadako Industrialdea, SA, Orduñako Industrialdea, SA, y Centro de Empresas de Zamudio, SA.

Se crea Arabako Industrialdea, SA

- Grupo EVE: el Ente Vasco de la Energía y 6 sociedades.
- Grupo Eusko- Trenbideak: 2 sociedades.
- Otras: 7 entes públicos de derecho privado, 12 sociedades y 1 fundación.

En 2011 desaparecen las siguientes sociedades: SPGVA y Itsasmendikoi, SA.

Se crean las siguientes sociedades: Alokabide, SA, Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa, SA.

Se crean los siguientes entes: Agencia Vasca de Cooperación al Desarrollo y Lanbide-Servicio Vasco de Empleo (\*\*)

Se crea la Fundación 2012

(\*) Cambio de denominación de SPRI, SA. Con fecha 6 de junio de 2011, se inscribe en el Registro Mercantil de Álava el cambio de denominación de la Sociedad pasando a ser Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SA



(\*\*) A pesar de que, desde el 3 de noviembre de 2011, LANBIDE es un Organismo Autónomo, en base a la autorización del Departamento de Economía y Hacienda del GOVA, las CCAA se han formulado como ente público de derecho privado. A efectos de esta presentación lo consideramos como tal.

Se han seleccionado las sociedades STC-ELS, SA y VISESA, y el ente ETS, que representan conjuntamente el 26% del presupuesto de capital y el 8% del presupuesto de explotación sobre el total de los presupuestos del Sector Público Empresarial:

SOCIEDAD/ENTE	% PARTICIPACIÓN		OBJETO
	GOVA		
<b>SOCIEDADES PÚBLICAS:</b>			
1. STC-ELS, SA.....	99,01%		Promoción industrial, fomentar la creación de nuevas empresas y cooperación entre empresas.
2. VISESA .....	67%		Promoción y rehabilitación de viviendas, preferentemente de protección oficial.
<b>ENTES PÚBLICOS DE DERECHO PRIVADO:</b>			
3. ETS.....	100%		Cooperación técnica en materia de ferrocarriles, construcción de infraestructuras de transporte ferroviario y su conservación, gestión y administración.

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- **Legales:** en las áreas presupuestarias, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, compras y servicios, concesión de subvenciones y normativa sobre ingresos de derecho público.
- **Contables:** se analiza si las CCAA se elaboran de conformidad con los principios contables que resultan de aplicación. Todos los entes y sociedades, integrantes del Sector Público de la CAE, que son objeto de este informe de fiscalización disponen de un informe de auditoría financiera y de cumplimiento presupuestario realizados por firmas externas, que han sido tenidos en cuenta por este TVCP para la realización del trabajo.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

## II. OPINIÓN

### II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

#### II.1.1 PERSONAL

1.- El Ente Público ETS, mantiene las retribuciones de diciembre de 2010 sobre su personal laboral, sobre las cuales no se había aplicado disminución alguna, tal y como estipulaba la Ley 3/2010, de 24 de junio, que establecía la adopción de medidas extraordinarias para la reducción del déficit público para el ejercicio 2010, contraviniendo por lo tanto lo establecido en el artículo 22.2 de la Ley 39/2010, de 22 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Estado para el ejercicio 2011.

2.- La Ley 39/2010, de 22 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Estado para el ejercicio 2011, limita las contrataciones de personal del sector público durante dicho ejercicio. Así, el artículo 23.1 establece el límite del 10% de la tasa de reposición de efectivos para las plazas de nuevo ingreso, y siempre que correspondan a categorías prioritarias o que afecten al funcionamiento de los servicios públicos esenciales.

La sociedad STC-ELS, SA y el ente ETS, han incumplido el artículo 23.1 en la contratación de personal fijo, al dar de alta a tres y dos trabajadores, respectivamente.

3.- STC-ELS, SA contrata el proceso de selección de personal con una empresa especializada que da publicidad a la convocatoria y propone una lista final de candidatos. La sociedad no ha exigido a la empresa contratada la aportación de documentación que permita la verificación de los cumplimientos de los principios igualdad, mérito y capacidad en la selección de dichos candidatos, por lo que no se ha podido verificar el cumplimiento de dichos principios. Las contrataciones realizadas así en el ejercicio 2011 han sido 3 personas con contratos fijos.

Además, la lista final de candidatos propuesta por las empresas externas de selección de personal no está ordenada por puntos y no se ha publicado el tipo de contrato a suscribir con la persona contratada.

4.- STC-ELS, SA suscribe un acuerdo con un trabajador acordando la rescisión de su contrato, a través del cual se le ha practicado una indemnización de 85.000 euros, sin que se pueda determinar el importe que de acuerdo a la normativa laboral le hubiera correspondido.

5.- ETS: A un trabajador temporal, en plantilla en la empresa desde 2009, se le hace un contrato de relevo con carácter indefinido sin haberse realizado proceso de selección alguno. En la convocatoria de la plaza que venía cubriendo desde el ejercicio 2009, se indicaba el carácter temporal.



6.- ETS indemniza a un trabajador con 80.000 euros, por extinción del contrato por causas objetivas, indemnización abonada que no está soportada por ningún supuesto legal ni por convenio.

7.- ETS ha abonado 50.236 euros, cantidad que excede en 3.992 euros del importe que le correspondería según convenio por haber cumplido 55 años y estar afecto a una incapacidad permanente total, y que debería haber ascendido a 46.244 euros.

## **II.1.2 CONTRATACIÓN DE BIENES Y SERVICIOS**

### **STC-ELS, SA**

8.- En 3 contratos, adjudicados por 587.418 euros, la solvencia exigida en pliegos limita la concurrencia. En 2 de esos contratos, que se licitan por 190.000 euros cada uno, se exige una clasificación, cuya categoría es la D, es decir anualidad igual o superior a 600.000 euros. En el tercer contrato licitado por 1,4 millones de euros, se indica que sólo podrán tomar parte en el concurso aquellas empresas que acrediten tener un volumen de negocio anual superior a 2 millones de euros. (deficiencia A5 en Anexo A.16.1).

9.- En 4 contratos, adjudicados por 596.337 euros, la tramitación ha sido con petición de ofertas cuando, por su importe, deberían haberse tramitado con publicidad (deficiencia B1 en Anexo A.16.1).

